




Sanblasak
abiadura bizian

www.antzizar.net
tel. 943 887900





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

JAKINTZA
IKASTOLA



ORDIZIA


Kalitatea:

zilarrezko



saria

Euskadi



⇒ 2 urtetik 18 urtera,
eskolaz aldatu gabe

⇒ Euskaraz Bizi

⇒ Iikasle eleanitzak eginez

Deitu eta elkarrizketa
adostuko dugu
(943 16 05 40)

Zerbitzuak

- ✕ Haurtzaindegia.
- ✕ Jangela
- ✕ Garraioa.

Estraeskolarrak

- ✕ Abesbatza.
- ✕ Baleta.
- ✕ Liburutegia.
- ✕ Antzerkia.
- ✕ Irratia.
- ✕ Udako aktibitateak.
- ✕ Guraso eskola

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Iñaki Gurrutxaga

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Soraluze, Iñaki Ugalde, Agurtzane Bikuña, Aitziber Murua, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz eta Joseba Garmendia.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta

GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



AHT Gelditu! Elkarlanak deituta

AHTren aurkako manifestazioa Tolosan, otsailaren 1ean

Bihar, larunbata, Abiadura Handiko Trenari oposizioa erakusten dioten hainbat talde eta erakundek osatutako AHT Gelditu! Elkarlanak manifestazioa deitu du Tolosan. Manifestazio horren helburua AHT gelditzeko beharra aldarrikatzea da, "bere justifikazio faltagatik nahiz eragingo lituzkeen kalte ekologiko, sozial eta ekonomikoengatik, baita nekazaritzari eta lurraldearen orekari eragingo lizkiekeenengatik ere". Antolatzaileen arabera, "gaitzespen zabala" jaso duen makro-proiektu horren "inposaketa" arbuizatea du xede ekimenak.

Manifestazioaren deitzaileek diotenez, mobilizazio indartsu hau bultzatzeko beharra "Eusko Jaurlaritzaren inposatze egitasmoari aurre egiteko" antolatu da. "AHT inoiz gauzatuko balitz, arlo sozialean nahiz ingurumenean eragingo lituzkeen ondorioen larritasunari buruz, eta ezarri nahi zaigun garraio eta gizarte

ereduari dagokionean eztabaida zabal bat piztu beharra dago", diote ekimenerako kideek. Hala, proiektu hau aurrera eramateko garaian Eusko Jaurlaritzan "erabateko desinformazioaz" baliatu dela azpimarratzen dute. Manifestazioa arratsaldeko 18:00etan abiatuko da Triangelu plazatik 'AHT Gelditu! Inposaketarik ez' lelopean. Zuzenki kaltetua den jendearengandik hasi, eta kultur elkarte, sindikatu, indar politiko, udal eta gizarte taldeei egiten diete Tolosara joateko deia.

Goierriko sei herri zuzenki kaltetuak

Ezkio-Itsaso, Ormaiztegi, Beasain, Ordizia, Itsasondo eta Legorreta dira egin asmo den AHTren proiektuak zuzenean kaltetuko dituen herriak. Hori dela eta, hamar bat lagunek Abiadura Handiko Trenaren (AHT) azterketa geoteknikoak egiteko lanak geldiarazi zituzten abenduaren 20an Beasainen eta Legorretan.

Goierritarra Goierriko kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Jon Gorrotxategi euskal presoak Beasaina ekarri zuten urtarilaren 21ean


Soto del Real (Madril) espetxean dagoen Jon Gorrotxategi Batasuneko Mahai Nazionalako kidea Beasaina ekarri zuten iragan urtarilaren 21ean. Hasiera batean, urtarilaren 18an ekarri behar zuten, haren amaren heriotza zela eta, baina, senideek GOIERRITARRARI adierazi diotenez, "espetxe zaindarien arduragabekeriak edota bestelako aginduren bat" dela medio, ez zen posible izan Gorrotxategi etxera ekartzea. Azkenean, urtarilaren 21ean, goizeko 10:00etatik gaueko 22:00etara etxean izan zen Beasaingo presoak, eta "une latzak pasatu dituen arren, erabat indarberriturik" eraman zutela adierazi zuten haren senideek. Gorrotxategi iazko maiatzatik dago preso Garzon epailearen aginduz.

Jon Iturrarte kexu azaldu da Zegamako Ehungintza tailerrak hartu duen bidearekin



Jon Iturrartek prentsaurrekoa eskaini zuen urtarilaren 17an Zegamako Kultur Etxean Ehungintza tailerrak hartu duen bidearekin ados ez dagoela esateko. Iturrarteren kexa Zegamako Udalaren eta Goiekiren aurkakoa zen. Bera izan zen proiektuaren bultzatzailea, eta erakunde horiek bertatik kanpo utzi dutela salatu ondoren, aintzat ez dutela hartzen adierazi zuen.

Sari gehiago Josune Bereziarturentzat



Josune Bereziartu eskalatzailerik lasaotarra saria jaso eta saria jaso dabil azken boladan. Aurreko alean Gipuzkoako kirolari onenaren saria eman ziotela adierazi genuen, eta hurrezkerorik beste bi sari jaso ditu Bereziartuk. Lehena, urtarilaren 23an Ibarretxeren eskutik jasotako euskal kirolari onenaren Euskadi Saria eta bigarrena, Sabino Arana Fundazioak eskainitakoa.



Goierriko turismo eskaintza ikusgai izango da Madrilgo Fitur azokan

Egunotan Madrilan ospatzen ari den Nazioarteko Turismo Azokan Goiturreko ordezkariak lan eta lan ari dira Goierriko Turismoaren berri emanez, Gipuzkoan zuen estandean. Azoka urtarilaren 29an hasi zen eta otsailaren 2ra arte iraungo du. Aldi berean, asteburu honetan Parisen egiteko den turismo azokan ere izango dira Goiturreko ordezkariak. Horrez gain, Bordelen, Toullosen eta lehen aldiz Donostiako Kursaallean egingo diren azoketan Goierriko informazioa eskuragai izango dela dio Nikolas Osinalde Goiturreko ordezkariak. Martxoan kaleratuko du Goiturrek eskuorri berria, eta urtero egiten dituzten kanpainez gain, aurtengo lan-ildo nagusiak Goierriko enprekin egin beharreko lanak eta kalitatea izango dira, Osinalderen arabera.

Beste bi sari irabazi ditu Irati Goikoetxea beasaindarrak, hitz-lauz eta poesian

Irati Goikoetxea beasaindarrak irabazi ditu gazteen mailan Hondarribiko Udalak antolatutako Bordari eta Satarka sariak: lehen bi sariak hitz-lauz eta poesian. Goikoetxeak 18 urte bete berri ditu, eta amaiera ezin hobea eman dio gazteen mailako ibilari. 50 sari baino gehiago irabazia da, horietako sei azken bi hilabeteetan. Bertsoak, olerkiak eta ipuinak bitarteko, literaturaz gozaten jarraitu nahi du egun Matematika ikasten ari den beasaindarrak.



JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta: Legorreta Beasain Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO

Okilak, gure basoetako txalapartariak

Sortu berria den Okiltxo Elkarteko Ornitologikoak okila hartu du izena eman eta ordezkaturako duen hegaztia bezala. Baina ba al dakizu zer den okila? Ze okil mota aurki dezakegu gugandik gertu? Zein da bere egoera?

Okilen familia osatzen duten espezieak ia mundu guztian topa daitezke. Orokorrean zuhaitz enborrak dituzte bizi-leku eta elikapen iturri. Enborretan gora eta behera ibiltzeko buztanaren erdialdeko lumak zurrinak dituzte eta atzaparrak zigodaktiloak, hau da, bi atzapar aurrealdera eta beste bi atze aldera. Elikagai ohikoenak enborpean topatzen dituzten intsektu helduak eta larbak badira ere, urrak, fruitu batzuk eta zenbait kasutan beste hegazti batzuen txitoak jan ditzakete. Okilen ezaugarri nagusiak moko indartsu eta zorrotzak, kaskezur sendoak eta lepo luze eta gihartsuak dira. Egitura sendo horiekin enborra zulatzeko dute eta mihi luze eta itsaskorraren laguntzaz intsektu eta larbetara iristen dira. Horretarako ez ezik, enborretan habiak zulatzeko ere erabiltzen dute beren moko zorrotz eta sendoa. Kontuan hartzeko moduko espezieak dira, gure basoen kontserbazio egoeraren adierazle onak baitira.

Europar dauden 10 okil espezieetatik Euskal Herrian 7 topa ditzakegu: lepitxulua, okil berdea, okil beltza, okil gibelabarra, okil handia, okil ertaina eta okil txikia. Baina espezie aberastasun hau ez da okilen egoera onaren isla. Egoera bereziki larrian aurkitzen direnak okil gibelabarra, okil beltza eta okil ertaina dira. Gainerako espezieen banaketa zabalagoa bada ere, populazioen egoera ez da nahiko gurekonea eta azken urteetan gainbehera doaz. Gainera egoera txar horri askotan jarraipen egoki bat egiteko zailtasuna batu behar zaio.

Habitataren suntsipena da egoera honetara eramane gaituen eragile nagusia (Gipuzkoako basoen % 30 baino gutxiago osatzen dute bertako zuhaitzietatik). Orokorrean baso handi eta helduen beharra dute eta gainera birlandaketak egiterako garaian kanpoko espezieak erabiltzeak arazoa larriagotzen du. Okilen beharizanetarako

hobe doitzen dira bertako harizti, amezti eta pagadiak, bertako basoen ezaugarriak eta pinu-landaketenak erabat desberdinak baitira. Horrek baso-mota batean eta beste an aurkituko ditugun hegazti-espezieetan eragin nabaria du. Birlandaketako pinudiak, txontak, erregetxo bekain zuriak eta pinu-kaskabeltzak bezalako espezieek monopolizatzen dituzte. Bertan hegaztiak dentsitate altuagoak azaltzen badute ere, baso horien hegazti-aniztasuna kaxkarragoa da.

Basoak heltzen eta zahartzen doazen heinean, bertan aurkitu dezakegun espezie kopurua eta euren arteko harremanen konplexutasuna areagotzen dira, basoak aberastuz. Birlandaketetan zuhaitz guztiak adin berekoak dira, landaredi-aniztasuna txikia da eta bateratsu moztu direnez, baso zaharrek eskaintzen dituzten nabardurak galtzen dira. Paisaiaren dibertsitatea murriztu egiten da alegia. Okilek baso helduak hobesten dituztenez, horien presentzia aberastasun ekologikoaren adierazle da.

Habitataren galera arazo orokorra bada ere, lekuan lekuko pestizida edo bestelako kutsatzaileen erabilerak okil-populazioetan eragiten du, okil beltzaren kasuan adibidez.

Gure basoetako altxor hauek eta gainerako hegazti-komunitatea babesteko ezinbestekoa da bertako espezieen birlandaketak bultzatzea, gelditzen diren bertako baso, larre, ibaiertzeko zuhaitzi, seto eta zuhaiskadiak babestea eta pinuak ustiatzeko era nolabait aldatzea. Lan zaila da ordea, kontuan hartu behar baita baserritar askorentzat pinuak diru-sarrerak garrantzitsuak direla eta beraz, kudeaketa modua aldatzeko ez luke eragin ekonomiko negatiboa izan behar. Naturaren kontserbazioa eta etekin ekonomikoa uztartuko dituen kudeaketa modua topatu beharra dugu, garapen jasagarria alegia. Eztabaida irekia uzten dugu, guztiok baitugu zer esana! Badakizue beraz, urrena basoren batean txalaparta hotsak entzuten badituzue...zabaldutegiak eta zorrotzu belarriak! Okiltxoren bat zuen artean ibil daiteke!

Joseba Garmendia

GARAIA GARAIOA

✓ **Hontza handiak arraultzak kumatzen ari dira** dagoeneko, izatez kumaldi goiztiarrenetarikoa duen hegazti harraparia da. Gainerakoek baldintza klimatiko egokiagoen zain baitaude. Ehiza eta kumeen lapurreta dela eta, kinka larrian aurkitzen da gure artean hontza handia.

✓ **Otsailaren 2an Hezeguneen Nazioarteko eguna** ospatuko da. 1971n Irango Ramsar hirian hezeguneen aldeko nazioarteko hitzarmena sinatu zen. Horren arabera hezeguneak babesteko ardura hartu zen, daukaten garrantzi ekologiko eta hidrologikoagatik. Egun 130 herrialde eta 1.112 hezegune daude hitzarmenean.

✓ **Pixkanaka, hotzari aurre eginez, baso eta larreetako landareak esnatzen hasiak dira.** Nagiak lehenengo astindu eta loratzen diren landareen artean dauka narzisoak, gibel-belarra, baso-anemona, Erythronium dens-canis eta udaberri eszila, besteak beste.

✓ **Katajineta** animalia lurraldekoa izanik, gorotzez eginiko markak mugatzen du bere lurraldea. Baina garai honetan areagotu egiten ditu markaketak eta horien zainketa: katajineta ar-emetze garaian sartu gara.

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

AHT gelditzeko manifestazioa Tolosan

Datorren otsailaren lean, larunbata, Abiadura Handiko Trenari oposizioa erakusten dioten hainbat talde eta erakunderen arteko AHT Gelditu! Elkarlanak manifestazioa deitu du Tolosan, AHT gelditu beharra aldarrikatzeko eta bere justifikazio faltagatik nahiz eragingo lituzkeen kalte ekologiko, sozial eta ekonomikoengatik, baita nekazaritzari eta lurraldearen orekari eragingo lizkiekeenengatik ere, gaitzespen zabala jaso duen makro-proiektu horren inposaketa arbuiatzeko.

Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Sustapen Ministerioak AHTren auzian agertzen duen intrantsigentzia dela eta, deialdi berezia egin nahi diegu, gainera, AHTri oposizioa erakusten dioten jende eta erakunde guztiei 'AHT gelditu! Inposaketarik ez' lelopean egingo den manifestazio horretan parte hartzeko. Manifestazioa arratsaldeko 18:00etan abiatuko da Tolosako Triangelu plazatik. Mobilizazio indartsu bat bultzatu behar dugu Eusko Jaurlaritza inposatzen ari den egitasmoari aurre egiteko eta AHTk, inoiz gauzatuko baltz, arlo sozialean nahiz ingurumenean eragingo lituzkeen ondorioen larritasunari buruz erabateko desinformazioaz baliatuta, kosta ala kosta ezarri nahi zaigun garraio eta gizarte ereduari dagokionean eztabaida zabal eta eraldaketa sakon bati ekin behar

zaiola aldarrikatzeko.

Garraio azpiegiturak giltzarri dira bizi nahi dugun herri ereduarentzat. AHTren gaia dela eta -egituragatik Y izenarekin ezaguna dena eta Iruñea Zaragozarekin lotzen duen adar nafarra-, bistakoa da garraio sistema horrek, ingurumenean eragindako kalte izugarriekin batera, ikaragarri garestia eta lurralde nahiz gizarte ikuspegitik arras diskriminatzailea dela. Horrez gain, AHT-ren proiektua modu inposatzailean bultzatu da, administrazio organo erabakitzaileen eta herritarren artean leizea zabalduta eta udalerri kaltetuen iritzia mespretxatuta.

Aldi berean, AHTren afera dela eta, indar politikoen artean izan diren azpijokoek eta adostutako diferentziek egungo sistema parlamentaristak dituen muga geroz eta nabarmenagoak agerian jarri baino ez du egin. Ez da harritzekoa, beraz, euskal gizarteak jende askok AHT zalantzan jartzea eta proiektu hori interes orokorrekoa dela gezurtatzea. Izan ere, herrien, eskualdeen eta gizartearen interes orokorraren gainera hemengo eta hango gobernuak kapital handiaren interesei ematen dieten lehentasunaren adibide gordina da AHT, energia plan erraldoiak, superportuak eta pareko zenbait azpiegitura lan erraldoi bezala. Hortaz, inolaz ere gauzatu behar ez den eta erabateko larritasuna duen egitasmo baten aurrean gaude. Bestetik, gure herriak bere osotasunean jasango

duen arazo bat izatea, bere larritasuna erakustez gainera, oposizioa antolatzeke orduan eragingarri suerta daiteke.

Gogor salatu behar dugu Eusko Jaurlaritzaren jarrera, Ibarretxeren Planaren markoan 'Euskal Y' a delako egitasmoaren inposaketa azkartzeko erabaki larria hartu baitu, euskal gizartearen AHTren afe- ran dagoen desadostasun nabaria aintzat hartu gabe. Bere esanetan, AHTk ezin duen gehiago itxaron, baina nahikoa suntsitua dagoen euskal bizilurra ere ezin dezakeela luzaroan itxaron guztiz ahaztuta dago, are itxurazko "garapen sostengarri" baten izenean bultzatzen dituen beste hainbat azpiegitura egitasmo erasokor eta zentzugabeek mehatxatuta dagoenean. Gertaera horrek Gasteizko Gobernuaren lehenesten dituen klase interesak uzten ditu agerian, gure herriaren premia sozialei inolaz ere erantzuten ez dien makro-proiektu baten aurrean baikaude.

Ondorioz, herritarrek eta udalerrri kaltetuek proiektuarekiko azaldu duten arbuioa errespetatua izan dadin, lokal mailako beto eskubidea onartu dadila eskatzen dugu, azpiegitura honek edota interes lokal kolektiboen aurka jo dezakeen beste edozeinek eragindako herrietan beren erabaki propioak hartzeko ahalmena izan dezaten. Ildo honetan, AHTren proiektuko lan geoteknikoak eragozteko azken hilabeteotan egiten ari den oposizioa ontzat ematen dugu. AHTri oposizio tinkoa

erakusten dioten hainbat herritan lan horiek geldiarazi egin dituzte.

Hori denagatik, dei egiten dugu otsailaren lean Tolosan egingo den manifestazioan parte hartzera, AHTren inposizioak gizartearen ezezko biribila jaso dezan, ea horrekin lortzen dugun egitasmo hori geldiaraztea eta desarroilismoaren eragin ekologiko eta sozial suntsitzaileei aurre egiteko kapaz izango den gizarte bizitza orekatu eta aske bat berreraikitzearen alde egiten ari den borrokari bultzada bat ematea. AHTri emango zaion erantzun honetan jende guztiaren parte hartzea beharrezkoa da, zuzenki kaltetua den jendearengandik hasi, kultur elkarte, sindikatu, indar politiko, udal eta gizarte talde desberdinak bilduz, horrela baino ezingo baititu AHTrerikiko oposizioak bere helburuak lortuko: AHT Gelditu! Inposaketarik ez!

Danel Etxeberria

AHT Gelditu! Elkarlana

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 erreidea, 419 Km

BEASAIN



1909 ezkerotik Herriaren zerbitzuan

Euskal kultura eta hizkuntzan sustraitua:

- ☐ "BAI EUSKARARI" akordioan parte hartzailea
- ☐ Euskal Herriko jaiak eta tradizioak bermatuz



La Salletar estiloa:

- ☒ Kristau eskola
- ☒ Frogaturiko pedagogi esperientzia
- ☒ Berritzaileak:
 - Ingelesa 4 urtetatik aurrera
 - ULISES, OPTIMIS, CREA, IDEAL, FENIX...

Hautzaindegi zerbitzua
Jangela
Eskola garraioa

☎ 943 88 01 39



SAN BENITO IKASTOLA

Euskadi enparantza, z/g

E-mail: lazkao@ikastola.net

Tfnoa.: 943 88 08 00 - Faxa: 943 88 18 16

20210 LAZKAO

www.sanbenitoikastola.com



HAUTZAINDEGIA



BATXILERGOAK

GARUNEN SUSPERTZE




PSIKOMOTRIZITATE



JANTOKIA

HAUR HEZKUNTZA



INFORMATIKAESKOLA



GARRAIOA

LEHEN HEZKUNTZA



IRRATI TAILERRA




LUDOTEKA

DRH



LABORATEGIAK



HIZKUNTZA ESKOLA



INGELES UDIALEKUPAK



ANTZERKI TAILERRA



TRIKITXA ESKOLA



KIROLAK



GURASO ESKOLA





*Urteari
hasera ona
emateko,
Goierriko
aurreneko
jaiak,
Sanblasak
ospatzera
gonbidatzen
zaituztegu
goierritar
guztioek.*



IDIAZABALGO

UDALA

GARABI



Zubi-garabi
eta
jasogailuen
mantenimendu
eta
konponketa

*San Blas jai
zoriontsuak guztioi!*

Tel.: 943 187 300

Faxa: 943 187 357

E-posta: grua@garabi.com

<http://www.garabi.com>

Ezilatza industrialdea - B partzela, 1 Zkia.

IDIAZABAL

Idiazabalgo Gazte Asanbladak Goitibehera jaitsiera antolatu du

Ohitura ez hain zaharra berreskuratuz

Aurtengorekin bigarren urtea da Idiazabalgo Gazte Asanbladak Goitibehera jaitsiera antolatzen duela. Nonbait, orain dela urte batzuk arte ohitura zen Idiazabalen halako ikuskizuna antolatzea, eta jendeak gustura hartzen zuela ikusita, irekitako bide horri gurpil gainean ekitea erabaki dute. Jaitsiera otsailaren 1ean, bihar, izango da arratsaldeko 16:00etan hasita.

Iazko Goitibehera jaitsierak izan zuen harrena ona ikusi eta egindako balorazio baiko-rra dela medio, aurtengo San Blasetan ere izango da ikuskizunerako tarte. IGAKo kide Adrian Larrañaga eta Asier Urteaga aritu dira berri- ketan GOIERRITARRA aldizka- riarekin, eta ohitura zaharra zena berreskuratu egin dutela diote: "Ohitura polita zela ikusi genuen eta herriari ekarpen ona egiten ziola.



Gainera, jendea festetara in- guratzeko modu bat da, eta horregatik erabaki dugu be- rriz antolatzea", azpimarratu dute bi gazteek.

Bestalde, herriko jendea ere oso gustura geratu zela nabarmentzen dute Adrianek eta Asierrek. "Azken batean, jendea ikuskizuna gustatzen zaio", diote.

Iazko ekitaldira bederatzi goitibehera gerturatu ziren, eta aurtun kopuru hori gaintze- za espero dute. Estilo guz- tietakoak ikusten direla dio Adrianek: "Iazkoan, batzuk garai bateko errodamendue- kin atera ziren, baina gaur egun, gehienek gomazko gur-

pilak erabiltzen dituzte". Adrian bera da iazko irabaz- leetako bat, eta aurtun ere erronka bera lortzeko inten- tzioarekin aterako da. Nor- malean bikoteka parte har- tzen da Goitibeheretan, baina badira hiru lagunez osatuta- koak ere. Horrez gain, parte hartzaile bakoitzak prestatzen ditu bere ibilgailuak.

Ibilbidea eta sariak

Bihar arratsaldean izango da jaitsiera. Gurutzetatik abiatu- ko dira parte hartzaileak, eta elizarainoko ibilbidea egin beharko dute. "Gutxi gora behera 900 metro inguruko ibilbidea da, eta tartean ba-



dira alu xamarrek diren zen- bait bihurgune. Baina, beno, horrek dauka grazia, ezta?", diote. Urteagak dioenez, prestatutako ibilbidea garai batean egiten zen bera da.

Goitibehera honetan parte hartzeko ez da beste mundu- ko ezer egin beharrik. "Ba- koitzak berea ekarri behar du, eta izen-ematea momen- tuan bertan egin daiteke", gaineratzen dute. Parte har- tzaileek ez dute zertan idiaza- baldarrak izan beharrik. Ira- bazteko balentria lortzen due- nak, gainera, gazta, ardo boti- la eta txapela etxera eramate- ko ohorea izango du.



Jaietan ere
preso eta errefuxiatuak
gogoan

Etorri zaigu berriro ere
Idiazabala San Blasa
Kimuren izenean
denok ondo pasa

ARANTZAZU arrandegia

☎ 943 18 70 68 - 943 18 76 99
K. Nagusia, 2 IDIAZABAL

JOSE LUIS arrandegia

☎ 943 80 03 25 - 943 18 76 99
Santa Barbara, 2 ZEGAMA

Era naturalean elikatutako
oiloen arrautza jarriberriak

Articola

SAN BLAS

ARRAUTZAK

Atxu etxea, 27

☎ 943 187 458
(oilategikoa)

☎ 943 187 503
(etxekoa)

IDIAZABAL

San Blas jaiak idiazabalen

Urtarrilak 31, ostirala:

18:30etan: San Blas festei hasiera emateko lunch-a Pilarrenko Jubilatu Elkartean jubilatuentzat.

20:00etan: Ohiko kanpai bueltakoak eta txistularien kalejira.

20:00etan: Jaien hasierako pregoia, Txupinazoa eta Axariaren jaitsiera, plazan.

20:30etan: Drindots taldearekin jai giroa.

21:30etan: Danborrada Nagusiko taldeen arteko afaria, plazako karpan.

22:00etan: Euskal Herriko Binakako Txapelketako eskuzko pilota partiduak, Igarondo pilotalekuan.

23:30etan: Helduen Danborrada Nagusia.

Ondoren, goizaldera arte, Drindots taldea.



Otsailak 1, larunbata:

11:00etan: Ordiziako erraldoi eta buruhandien konpartsa-aren kalejira, herriko txistularien laguntzarekin.

12:30etan: herriko dantzari txikien saioak.

14:30etan: mahaia- jarriko dira plazan bertan bazkladu nahi duten guztientzako.

16:00etan: Goitibehera jaitsiera egingo da, Gurutzetatik elizara arteko bidean, Gazte Asanbladak antolatuta.

20:00etan: Txistulari alardea Zelaako kiroldegian.

Arratsalde eta gau partean: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

Otsailak 2, igandea. Kandelari Eguna.

9:30etatik 11:00tara: Pro-bintzi mailako Bolo Txapelketa.

12:30etan: Binakako Urrezko Aizkora, pilotalekuan.

Nazabal-Olasagasti

Larretxea-Mindegia

13:00etan: Beti-Arri bandaren kalejira.

17:00etan: Frontenis txapelketako finala.

Ondoren, Herriko pilotari gazteen arteko partiduak.

18:30etan: Futbito txapelketako finala.

20:30etan: Ohiko kanpai bueltakoa.

23:30etan: Gladys Mercado y Mariachi Los Charros taldearekin dantzaldia.

Whiskey - Gazategia - Kafetegia

Jai zoriontsuak opa dizuegu!

943 187 734
IDIAZABAL

IONEKA
Moda

**Arropa - Jantzidenda
Konplementuak**

Bikuña, 1 **943 18 75 27** **IDIAZABAL**

**IGARONDO
PILOTALEKUKO
EDARITEGIA**

Jaietan ere falta direnak gogoan

943 18 77 53 **IDIAZABAL**

JERONIMO-ENEA

**Taberna
eta
gasolina surtidorea**

943 18 74 96
IDIAZABAL

**ZEPAI
JATETXEA**

943 18 71 98
IDIAZABAL

GAZTELU
Jatetxea

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

943 18 71 93
IDIAZABAL



Otsailak 3, astelehena.
San Blas Eguna.
Kuadrila Eguna.

10:00etan: Txistularien Kalejira.

11:00etan: Meza Nagusia Parrokiako Koruak abestuta, eta ohiko Erroskila Bedeinkazioa. Ondoren, hamaiketako Bikario Etxean.

11:30ak aldera: Jexuxen Jazpana.

12:00etan: Paella erraldoia

prestatzen hasiko dira plazan.

14:00etan: Paella jateko aukera izango da inguratzen den guztientzat. Jexuxen Jazpanak plazako giroa alaituko du.

16:30ean: Koadrilen arteko jokoak.

Jarraian, txaranga kalez kale ibiliko da giroa alaituz.

17:00etan: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoez 'Katxi-porreta' ikuskizuna eskainiko dute pilotalekuan.

21:30ean: Herri Afaria, plazako karpan. (Txartela eskatuko da).

24:00etatik goizaldera arte: Incansables txaranga arduratuko da kaleko giroa alaitzen.

Otsailak 4, asteartea.
San Blas Txiki Eguna.
Ezkonduen Eguna,
Umeen Eguna.

10:00etan: Txistularien kalejira.

11:00etatik 19:00etara: umeentzako jokuak kiroldegian.

11:30etan: Ohiko hamaiketako herriko plazan.

12:00etan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolarien saioa.

Arratsaldean, Mujika Jate-txean jarraituko dute, Juanito eta Txurdo txiste kontalariak lagun dituztela.

18:30ean: Talo eta sagardo dastatzea herriko plazan.

20:00etan: Buruhaundiak.

19:30etatik goizaldera arte: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

24:00etan: Axariaren igoera eta agurra.

ODEI
Edaritegia

Jai zoriontsuak denoi!

Nagusia, 29 ☎ 843 18 77 37
IDIAZABAL

KLIK ESTANKOAK

festa zoriontsuak opa dizkizue!!!



- Fax publikoa
- Fotokopiak
- Opariak

Tel.: 943 187 373
Faxa: 943 187 729

PERIKO
ARRAINDEGIA

Kale Nagusia, 16
☎ 943 18 71 13
IDIAZABAL

M

MUJIKA
jatetxea

Kogote erreak,
txuletak

Nagusia, 46 ☎ 943 18 73 19
IDIAZABAL

AXARI
jantzi denda

Jai zoriontsuak denoi

☎ 943 18 72 84

Nagusia, 15
IDIAZABAL

ALAI
Jatetxea



Jai
zoriontsuak!

Etxegarate gaina
☎ 943 18 76 55
IDIAZABAL

Etxegarate: 650 metro eta mila istorio

Etxegarate eta Idiazabal lotzeko errepidea 1851an eraiki zuten. N-1 errepidearen zati horrek, era batera edo bestera, azken hamarkadetan Idiazabalgo eguneroko bizitzan eragina izan du. Etxegarateren bikoizketa bukatzeaz dagoela ikusita, herriko edadetuonak sinistu ezinda begiratzen diote hiru urteotan egiten ari diren lanei. N-1 errepidearen inguruan sendotu eta handitzen ari den herriak, uste baino beranduago bada ere, aspaldiko eskaria beteta ikusiko du laister.

Benta Txikin, Etxegarateko mendatearen oinetan, gertutik jarraitu dituzte errepidea bikoizteko egiten ari diren lanak. Juanita Oiarbidek koarderno batean dauka apuntatuta Etxegarateko lanetako lehendabiziko harria noiz jarri zuten: 1999ko maiatzaren 25a. Horren ondoan bukatu gabeko beste esaldi bat dauka idatzita, "lanak (...) bukatuko dituzte". Zazpi bider lanen



Etxegarateko bidea 1963an.

bukaera atzeratu ondoren, hutsune horretan otsailaren erdialdeko egunen baten zenbakia idatzi beharrean izango direla uste dute Bentako Inaziok eta Juanitak.

Etxegarateren bikoizketak aspaldiko eskari eta beharra, erantzuna eta erremedioa emango dizkio. 12 mila ibilgailu ibiltzen da egunero mendatean gora eta behera, erdia baina gehiago kamioiak dira. Rikardo Telleriak oraingo trafikoaren laurdena ibiltzen zeneko Etxegarate eza-

gutu zuen. Kamioiarekin eta autoarekin bide hori egiten zuenean gauzak oso bestelakoak ziren: "Trafiko gutxi ibiltzen zen, oraingoaren laurdena edo. Kaminoa txarra zen, kurba betetakoa. Gaztañaditxuloko kurba zen txarrenetakoa, hura kendu egin zuten azkenean". Ibilgailuak ere ez ziren gaurkoak bezalakoak eta goitik beherako bidean lanak izaten zituzten "frenu onik ez genuen, eta beherakoan berotu egiten ziren, motorrak berriz ez zion kamioari behar bezala eus-

ten" gogoratzen du Rikardok. Ardoa, lastoa, egurra edota harrobian jasotako harriak hartuta ibiltzen zen idiazabaldar hau Etxegaraten barrena. Benta Txikin, kamioia, orduko 20km-ko abiadura gainditu ezinda, dardarizoa sortuz nola pasatzen ziren ahaztu gabe dute.

Bizikletan, oinez, edota gurdian belarretara joaten zirenean hainbat idiazabaldarrek diote orduan ezagutu zuten bideak eta orain egiten ari direnak ez dutela antzik.

Kostatako bidea

Gaur egun N-1 errepideari dagokion Etxegarateko zatia 1849-1851 urteen artean eraiki zuten. Frantzia eta Espainia lotzen zituen bidea mozte aldera, Beasainen antzinako errege bidean hasi eta Idiazabal, Etxegarate eta Altsasu arteko errepidea egin zuten. Bide horrek ordea bi aurkari izan zituen: Deba Garaiko herrietatik pasatzen zen errege bidea eta Otzaurtekoa. Deba Garaiko herriek bertatik pasatzen zen errege bideari garrantzia gehiago emateko eskatu zioten Gipuzkoako Foru Aldundiari Altsasutik Bea-

MUJIKA HARATEGIA

Odolki eta txorizoetan berezitasuna

Kale nagusia, 2

☎ 943 18 71 82

IDIAZABAL

BATZOKI TABERNA

Kalamaretan espezialdua

Nagusia, 24 ☎ 943 18 71 25

IDIAZABAL

KONTXI HARATEGIA MIKEL JANARIDENDA

Festa onak pasa!

Nagusia, 14

☎ 943 18 70 78

IDIAZABAL



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049 - 943 187 045

Ondramuño baserria IDIAZABAL

sain arteko errepidea ireki eta gutxira. Eskariak ez zuen erantzunik izan. Aurre egin beharreko bigarren oztipoa, Otzaurteko bideak sortu zuen. 1875. urtean trafikoa Zegamatik desbideratu zutela eta kexa aurkeztu zuen Idiazabalgo Udalak Foru Aldundian. Erakunde horrek, bi errepideen abantailak eta desabantailak neurtu ondoren, Etxegarateren alde apustu egin zuen. Kostata, baina azkenean Idiazabalek errepide nagusia Etxegarateetik barrena bideratzea lortu zuen.

"Sakamantekas" eta barkua

Hasieran bi karrileko bidea zen, gerora, hirugarren bidea egin zuten zati batzuetan. Aldaketa hark ere zeresana eman zuen herrian, Bentako Inazioren esanetan, istripu gehiago izango zirela eta beldur zen jendea. Ez zebiltzan oker. Urte gutxiren buruan errepideetako "puntu beltz" izendapena lortu baitzuen Etxegaratek. Ezbehar larriak ere gertatu dira. Herriar askok gogoan du Atxuko zubi parean azidoz betetako kamioiak izandako istripua. Herrian hainbat egunetan urarekin arazoak izan zituzten.



Etxegarate gaina 1982an.

Istorio kuriosoago eta barragarriagoak ere utzi ditu ordea Etxegarateko bideak urte hauetan guztietan. Etxegarateko Pilar Imazek ondo gogoratzen ditu oinez Idiazabaldik mendatera egiten zituzten bidaiak "goizean abiatu eta eguerdi arte guztia oinez ematen genuen". Norbaitek kontatutako historia batek bide hori zailagoa egiten zuten "bidean kotxeren bat zetorrela ikusten bagenuen ezkutatu egiten ginen 'sakamantekas' zelakoan". Askotan, "sakamantekasen" beldur, Ursuarandik barrena egiten zuten

bidea handik autorik ez baitzen ibiltzen.

Brometarako aitzakia ere izan da Etxegarateko bidea, Bentako Inaziok ez du ahaztu Inuzente egun batean norbaitek egindako txantxa: "Etxegaraten barku handi bat aparkatuta zegoela esan zuten eta jendea maldan gora joan zen hura ikustera".

Bizimodua 650 metrora

650 metrora, Etxegarate dioten kartelaren ondoan, errepidearen inguruko bizimodua berezia da. Bide ertzeko baserrian bizi da oraindik ere

Pilar Imaz, "hau latza izan da, ardiekin kaminoa alde batetik bestera pasatzeko asko sufritu dugu". Orain, Etxegarate gaineko bi karriletatik Gasteiz alderako doazen ibilgailuak bakarrik pasatzen dira "guretzat hori hobea da" dio Pilarrek, hala ere ez dauzka ahazteko errepide erdian jarri, bi aldetako trafikoa geratu eta artaldea pasatzeko egin beharra izan dituenak.

Bide berriarekin, Etxegarateko gainak itxura berria du. Urteetan, bidaiari atsedena egiteko geldialdia egiten zutenei harrera egiteko izan diren hiru jatetxeetatik bakarrik, Alai jatetxeak, jarraitzen du zabalik. Ongi Etorri eta Buenos Aires itxi egin dituzte. Etxegarateko tunelak eta haren sarreran egin duten errepide bidegurutzak ingurua aldatuta utzi du. Orain, Etxegarate gainetik trafikoa- ren erdia baina ez da pasatzen.

Errepide berria erabat zabaldu eta inauguratutakoan, Etxegaratek bere historiako aro berri bati ekingo dio. Egun hartan Benta Txikiko Juanitak, azkenean, duela ia lau urtetik koadernoan duen hutsunea bete ahal izango du.

Xabier Urteaga

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lllantak
filtoak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57



Giokela
Gure kalitatea

LUIS MARI HARATEGIA

Festa onak pasa!

Nagusia, 16

943 18 72 37

IDIAZABAL

IZPAR

Eskolako gaiak,
goxokiak, prentsa.

Jai zoriontsuak!

943 18 72 19 IDIAZABAL



ANAIK GARAJEA

MEKANIKA ETA IBILGAILU KONPONKETA

Guardiko Industrialdea

943 18 74 83

IDIAZABAL



JASO EQUIPOS DE OBRAS Y CONSTRUCCIONES S.L.

Garabi garaiak eta eraikuntzaren
beharrizanei aplikatutako
teknologia modernoa
Plataforma igotzaileak
Karga-jasogailuak


✓ **Fabrikazioa**

✓ **Salmenta**

✓ **Alokatzea**



AENOR-ek
onarturiko
entrepresa
ISO 9.001



jaso@jaso.com

☎ 943 18 70 00 - Faxe: 943 18 70 20

N-1, 415 Kma. IDIAZABAL



AMPO S.COOP
IDIAZABAL Gipuzkoa



AMPO S.COOP
BEASAIN Gipuzkoa



ALTZAIRU FUNDIZIOA

- Moldaturiko piezak.
- Zentrifugaturiko Tuboak.
 - * Aleatuak.
 - * Herdoiltezinak.
 - * Berogaitzak (Errefraktarioak).
 - * Nikel oinarritutako aleazioak.

AENOR-ek onarturiko empresa ISO 9002

☎ 943 18 80 00 - Faxe: 943 18 81 30

BALBULAGINTZA

- AMPO Koperatibak balbulagintzarako duen Dibisioaren merkatal izena: POYAM da.
- Bertan, 2" diametro duten balbuletatik 48" arterainokoak egiten dira.
- Balbula hauek, Petrolio, Petrokimika, Energia, Alumina, Kimika Industrietarako eta Kriogenika Lantegietarako, Industri nahiz etxetarako gas banatzaileentzat egiten dira.
- Honako etxe hauetaz homologatua: EXXON, TEXACO, AMOCO, CONOCO, DUPONT, B.P., REPSOL, ENA-GAS, GAS EUSKADI.

☎ 943 80 53 43 - Faxe: 943 88 88 47



Arg.: Fotoetxe.

Hasi dira Sanblasak

Aurreko ostiralean, urtarrilak 24, hasi ziren 2003. urteko Sanblasetako ekitaldiak. Lehendabiziko asteburuan Nazioarteko ziklo-krosak eta Herri krosak jarri zuten festa giroa. Azkeneko urteetan bezala, herriko tabernarien ekimenez musika (Akelarre taldearen emanaldia) izan zen larunbat gauean.

Festetako ekitaldiek ostiral honetatik, urtarrilak 31, aurrera jarraituko dute (10-11 orrialdeetan dago egitaraua).

Ziklo-krosa eta krosa

Urtarrilaren 25ean jokaturako Nazioarteko ziklo-krosean herritarrek emaitza onak eskuratu zituzten. Jon Urteagak Kadete mailako lasterketa irabazi zuen. Nesketan, Lide Larrañagak bigarren postua lortu zuen. Elite mailako Proba, David Secok irabazi zuen. Herri krosaren 23. edizioak parte hartzaile asko bildu zituen. Hauek sailkapenak.

Kadeteak; mutilak: Aitor Arrilaga, Mikel Muriel, Ander Biguri. Neskak: Eider Gisasola, Cristina Rojas, Lorena Lopez.

Helduak; gizonezkoak: Marcos Ramos, Jose Javier Cuadrado, Migel Anjel Encina. Emakumezkoak: Mari Sol Martinez, Maite Civicos. Izaskun Zubeldia. Helduen mailan parte hartu zuten herritarren sailkapena: gizonezkoak: Sergio Serrano, Jose Luis Imaz, Ander Serrano. Emakumezkoak: Lurdes Intxautsi, Loinaz Urrestarazu, Arantxa Imaz, Irantzu Arrizabalaga.



Lide Larrañaga eta Jon Urteaga herritarrek lan bikaina egin zuten ziklo-krosean.

Bielorrusiako haurrak

Udaran hilabete eta erdiz etxean Bielorrusiako haurrak hartzeko ekimena martxan jarri du berriro ere Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Aldaketarik ez badago ekainaren 19an etorri eta San Inazio egunera arte egongo dira haurrak Idiazabalen.

Iaz bederatzi neska egon ziren Idiazabalgo eta inguruko herritako familietan. Aurtun, familia horiek berriro ere haurrak etxeetan hartzeko asmoa dute. Hala ere, ekimenean herritar gehiagok parte hartzea da Gizarte Zerbitzuen helburua. Hori dela eta, otsailaren 14a bitartean, informazioa jaso eta izena emateko epea zabalik dago.

Interesa duenak Gizarte Laguntzailearengana jo dezake, edo bestela Udaletxera deituta (943 18 71 00) eskuratu dezake informazioa.

Eskiatzera

Otsailaren 22ko asteburuan Formigalera eskiatzera joateko bidaia antolatzen ari dira Kiroldegian. Otsailaren 22an, goizeko 5etan abiatu eta buelta igandean iluntzeko 8,30etan izango da. 102 euro kostatzen da bidaia, diru horrekin autobusa, afaria, gaueko egonaldia, gosaria eta 2 eguneko forfaita ordainduko dira. Materiala norberak eraman edo bertan alokatu dezake. Norbaitek ikastaroren bat egin nahi badu horretarako modua ere izango da. Izena, otsailaren 8a baino lehen eman behar da Zelaako kiroldegian.

Radarrak Etxegaraten

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak radarrak jarriko ditu Etxegarateko bidean. Etxegarate gainetik Idiazabala bitarteko errepide berrian kamioiak abiadura handian ibiltzen direla ikusi dute trafiko arduradunek eta horri aurre egin nahi diote.

Beheranzko bidean, abiadura orduko 80 km-ra mugatzen duen lau panel daude, baina kamioiek muga hori erraz gainditzen dute. Hasieran, radar mugikorrek jarriko dituzte, autoetan ezkutaturakoak. Aurrera begira, Etxegaraten radar egonkorrek jartzeko asmoa dute.

Xabier Urteaga

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxe: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLERETAN

☎ 943 02 73 53 Faxe: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

Loinazko San Martin eguna

Gure herriak Loinazko San Martin Santua du bere zaindari eta hori gogoratzeko asmoz usadioa dugu otsailaren 5a ospatzearren. Bezperan, San Martinen bederatzizurrenari bukaera emanez, otsailaren 4ko ilunabarrean, Santa Agedaren ohorezko kopla kantariak ibiliko dira.

Loinazko San Martin eguna Odoki Kofradeentzat ere egun berezia da. Aurten beraien XVIII. Biltzar Nagusia ospatuko dute.

Kofradiei harrera eta bilkura egingo zaie Bareak elkartean goizeko 9:30ean, ongi etorria ahogozagarriekin emanez. 10:30ean egingo da kofradien ibilaldia, txistulari, dantzari eta poxpolinek lagunduta. San Martinen estatuan lore-eskaintza egingo da eta ohorezko aureskua dan-

tzatuko da. Ondoren 11:00etan ospatuko den Meza Nagusira joango dira. 12:00etan egingo da Kofradiaren XVIII. kapituluaren ospakizuna eta ohorezko kofradiakideen izendapena. Luncha ere izango da. Eta amaiera, Olaberriako Castillo jatetxean egingo duten senidetazko bazkariarekin emango diote.

Bazkari honetara joan nahi dutenek bazkari-txartela erosi beharko dute otsailaren 3a baino lehen. Bazkaria 40 euro kostako da.

Iaz ospatu zen odolki lehiaketan Beasaingo Olano harategikoak irabazi zuten eta beraiek prestatu beharko dituzte otsailaren 5an egingo den senidetazko bazkari-rako odolkiak.

Nekane Altuna

XIII. Beasain idazlehiaketako sari ematea

Otsailaren 8an, eguerdiko 12:30ean egingo da XIII. Beasain idazlehiaketako sari ematea Beasaingo udaletxeko Batzar Arretoa. Sariak, Gipuzkoa/Donostia Kutzak finantzatu ditu eta saritutako idazlanak Udaleko Euskara-batzordeak argitaratuko ditu. 157 idazlan aurkeztu ziren eta horietako 37 saritu dituzte maila desberdinetan.

Odol ateraldien balantzea

Odol emaileen ordezkariak jakinarazi digunez, 2002 urtean, 1.024 odol ateratze egin ziren. 17 saio egin ziren eta batz besteko emaitza ona dela adierazi dute: saio bakoitzeko 60 ateratze inguru. Urtarrila eta martxoa dira hilabete onenak odol ateratze kopuruari dagokionean. Batz beste 144 pertsonen eman zuten odola. Ekaina eta abendua dira berriz, jendea odola ematera gutxien hurbiltzen diren hilabeteak. Batz beste 38 pertsonen eman zuten odola. Emaille gehienek urtean bi aldiz ematen dute odola, 304 emaillek. Urtean 3 edo 4 aldiz ematen duten emailleak berriz 41 dira. 2002. urtean 54 pertsonen eman zuten alta eta 36k baja.

Hurrengo odol ateratzea otsailaren 11an egingo da Urbi-etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera.

Mendiko federatu txartela berritzeko epea

Aitzgorri Mendizale Elkartetik jakinarazi dutenez dagoeneko epea zabalik dago otsailaren erdira arte mendiko federatu txartela berri nahi duenarentzat. Astelehenetik ostiralera Arana kalean duten egoitzara hurbildu zintezkete beraz, interesa duzuenok.

Asmubek antolatutako ikastaroa

Asmube Beasaingo Emakume Elkartetik jakinarazi dutenez, oraindik ere bada aukera ordenadore bidez mekanografia ikasteko antolatu duten ikastaroan parte hartzeko. 20 orduko ikastaroa da eta asteazken eta ostegunetan izango da 9:15etik 10:15era. Otsailaren 11an emango zaio hasiera ikastaroari.

Antzizar kiroldegian eskaintza berriak

Udalaren Kirolaren Udal Erakundeak 2003ko kirolaren kanpaina martxan jarria du dagoeneko 'Kirola egiten ari dira' lelopean. Gero eta jende gehiago da kiroldegira hurbiltzen dena, eta dagoeneko 4.247 bazkide ditu.

Adineko pertsonen ere lagundu nahi izan die inguru jator eta osasuntsuan kirola eta jolas edo terapia izaerako jarduerak fisikoetan parte har dezaten. Bazkideztan %35eko beherapena eskaintzen zaie. Iaz, %30 igo zen bazkide kopurua adineko pertsonen artean.

18 eta 26 urte duten gazteek ere %35eko beherapena izango dute bazkideztan. 2002. urtean 300 gazte baino gehiago baliatu zen eskaintza honetaz.

'Plus' abonoa da jendeak gehien egiten duen kirol txartela. Instalazio guztietara sarrera eta alokerak doan eta kirol ikastaro eta programetan prezio bereziak eskaintzen baitituzte bazkideztan mota honekin.

Berrikuntza moduan aipatu web orri berria jarri dutela martxan www.antzizar.net helbidean.

SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN (GIPUZKOA)

LOINATZ
Taberna
Jatetxea



Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN

GABINETE PSIKOLOGIKOA



Pedro Jose Landagutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- Depresioak
- Harremanetarako arazoak
- Beldurrak
- Antsiak
- Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk. BEASAIN



Mus txapelketa

Liztormendi elkarteak antolatutako mus txapelketa, lehen-go larunbatean jokatu zen eta bertan hogeitahiru bikotek parte hartu zuten, oraingo honetan ere Zegama eta Seguratik jende asko hurbildu zen txapelketara. Joxe Ramon Urbizu eta Miel Azkona zegamarrak izan ziren irabazle eta Juan Insausti eta Pello Arrieta segurarrak bigarren sailkatuak.

Bola lehiaketak

Aurreko alean nahasketa bat izan nuen, izan ere bi lehiaketarekin bat egin nuen, eta oraingo honetan nahasketa hau argitzen saiatuko naiz.

Horretarako esan alde batetik, taldekako erregularitateko bola txapelketa bi jaurtialditara jokatzeko dela eta hauek urtarilaren 5ean Herriaren eta 12an Olaberrin jokatuko zirela.

Bertako irabazle Zeraingo taldea izan zen. Talde hau Antonio Alustiza, Luis Aizpeolea, Patxi Arrondo, Juan Alustiza, Juantxo Alustiza eta Vixente Gerrak osatzen dute. Denen artean eta bi jaurtialditan 532 puntu lortu zituzten eta honekin garaipena.

Bestalde banakako erregularitate lehiaketa urtarilaren 19an hasi zen eta apirilaren 15an Lasarten amaituko da

San Blas

San Blas basiliza berriztatu zenetik, hau da 1988tik gaur egun arte San Blas egunez basiliza honetan meza eta janari bedeinkatzea egi ohi da, antzinako ohitura zaharrari so eginenez, aurtengoan ere usadio zahar honekin jarraituz otsailaren 3 astelehena iluntzeko 6,30etan meza eta janari bedeinkatzea izango da, eta azken urte hauetan bezala Liztormendi elkarte-an mokautxoia Udalak emanda.

Santa Ageda

Santa Ageda bezperan, aurtengoan ere azken urteetan bezala, herriar talde bat etxez etxe Santaeskean ibiliko da. Horretarako azken ensaioa ostiralean iluntzeko 8etan kultur etxean izango da.

Kultur elkarteak

Kultur elkarteak urteko batzarra otsailaren 16an eguerdiko 12,30etan kultur etxean egingo da.

hainbat bolatokitik jokatu ondoren.

Lehiaketa honetako 2. jaurtiketa hilaren 26an izan zen, Zeraingo Liztormendi bolatokian. Bertan 57 bolarik

parte hartu zuten eta jaurtialdi honetako garailea Imanol Agirre izan zen 47 birla etzan ondoren.

Mari Flor Mendizabal



Elkartasunezko talo festa

Otsailaren 2an, igandea, elkartasunezko talo festa izango da arratsaldeko 6,30etatik aurrera. Antolatzaileak udaleko Kultura Saila eta Ugara guraso elkarteak dira. Santa Ageda bezpera giroko jaia da igandekoa.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-
AK eta abar
✕ ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrocientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55



ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Herriko produktuak denen gustuko

Beste urtebete gehiagor emaitza bikaina eman dute herriko soro, zelai eta baratzeak. Errekonozimenduak ere bata bestearen atzetik iritsi dira han eta hemendik, baserriarrek ateratako produktuen kalitate gorenaren adierazle, eta Gabiriaren izena goi-mailan kokatzen da dagoeneko azoka berezi guztietan. Horren adibide ederrena Santo Tomas egunean Donostia-ko Konstituzio plazan soma zitekeen: barazki eta fruituen sei postutatik hiru hemengoak ziren.

Bukaerara iristen ari da aurtengo azoka denboraldia. Udazkenaren etorrerarekin batera hasita, inguruko azoka garrantzitsuenek ezagutu dute herriko laborarien artearen berri, eta ordainetan makina bat sari etorri da bueltan. Zumarraga-Urretxuko Santa Lutz peria bikaina suertatu zen alde horretatik, denera hamalau titulu eskuratu baitziren abenduaren 13 hartan. Donostia, Ordizia, Elgoibar, Arrasate, Deba eta Tolosa izan dira perigune nabarmenenak negu honetan.

Bestalde, azoken tradizio zaharrari fidelki jarraitzen dioten etxe gehiago ere badiugu herrian, sarien alorrean

horrenbesteko presentziarik izaten ez badute ere, Noare Etxeberri eta Iru-bide, esate baterako. Juanita Lazkanok aditzera ematen zigunez, *"perietara gustora joaten naiz oraindik, aurrera segitzeko ilusioa eta gogoia ematen dit. Aurtengo denboraldia oso ona izan da, eramandakoak berdindu ditugu behintzat eta"*. Asteazkenero Ordiziako plazara hutsik egin gabe joaten direnen artean dauke zenbait herritar.

Ondorengo laukian, zenbakitan besterik ez bada ere, aipatutakoaren isla izan dadin lortutako postuak jarri ditugu, etxez etxe banatuta.

Etxea	Postuak					Denera
	1.	2.	3.	4.	5.	
Bekoetxe	6	4	5			15
Oñatibi-txiki	3	2	3			8
Agerreberri		3	2		1	6
Izar-haundi	1	1	1			3
Baztarrika*	2		1			3
Urkiola	1			1		2
Landeta**	1					1
GUZTIRA	14	10	12	1	1	38

* Gazta eta ardiak

** Ganadua

Labur-labur

- Ormaiztegitik herrirako **goiko errepidea itxita** egongo da lubizi-garbiketarako iraun bitartean.
- **"Makilari"** herri aldiakarian idatzi nahi duen orori dei egiten dio Kultur Batzordeak gaur ostirala, iluntzeko 7:30etan, udaletxera ager dadin.
- Otsailaren 23an jokatu da **Gabiriako Rallysprinta** bosgarren urtez. Denboraldiko aurreneko proba, nobedadeak ikusteko aukera paregabea.
- **Korta sagardotegiak** San Sebastian egunetik martxan dauka txotxeko sagardoaren denboraldia.
- Aparteko erantzuna eman duzue gabiriarrak **GOIERRITARREN laguntza kanpainan**. Guztion babesagatik eta borondateagatik esker mila!

Aimar Maiz

Kross-eko emaitzak

Punta-puntan dabilta herriko hiru neska-mutiko gazte-txoen mailako zelai-korrikan edo kross-een. Mutiletan bikote bat dugu beti aurre-aurrean kokatzen dena, Iñigo Igartzabal eta Beñat Maiz, hain zuzen ere. Iñigok Hernanin txapela lortu zuen, eta pasa den igandean Idiazabalen Beñat gailendu zen. Nesken artean eta San Blas proban, Leire Murua bigarren helmugaratu zen. Podiuma zapaltzea lortzen dute hirurek parte hartzen duten laisterketetan.

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

ZUGAZTIBI

AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behe ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

Aurreku txapelketa



Urdaneta dantza taldeko dantzariak.

Laugarren urtez jarraian dantzak izango dira protagonista otsailaren lehen igandean. Aurreku txapelketa izango da jokoan otsailaren 2an, igandea, goizeko 11etatik aurrera Herri Antzokian. Bertan bi maila berezitu beharko dira, 7-11 urte bitartekoak batzuk eta 11-15 bitartekoak beste batzuk.

Altsasu, Donostia, Errenteria, Elgoibar, Lezo eta Ordiziako dantzariak arituko dira lehian eta egin beharreko lanak honakoak: gaztetxoek bi dantza egin beharko dituzte, alpagata eta agurra hain zuzen ere. 11-15 urte bitartekoek, aldiz, hiru, aurreko biez gain desafioa ere egin beharko baitute.

Ordiziatik Jakintza eta Urdaneta dantza taldeko gazteek

hartuko dute parte. Gaztetxo-en mailan Urdanetako Raul Lopez, Asier Aseginolaza, Asier Unanue, Jon Arizmen-di, Aitor Bolinaga eta Xabier Fajardo, eta beste mailan, Jakintzako Mikel Urretagoiena eta Urdanetako Eneko Txiki-rin, Aitor Insausti eta Xiker Hidalgo.

Eusko dantzaren biltzarra, Ordiziako Udala eta Urdaneta dantza talde eta gurasoek antolatutako txapelketa da hau eta esan, hilerro herri desberdinetan burutzen ari direla. Saio hauetan lortutako puntuaketen baturak esango du nortzuk izango diren maiatzaren 17an Errenterian jokatu den finalean parte hartuko duten dantzariak.

Aitor Calvillo

Antzerki garaia

Ordizia eta Beasaingo Udalek antolatutako 'Antzerki Garaia' programaren barnean 'Biblia osoa... gutxi gorabehera' antzerkia izango da ikusgai, otsailaren 7an, gaueko 22:15ean, Herri Antzokian. Patxi Barco zuzendari den obra honetan, hiru apaiz xelebrek bere "senideei" Itun Zaharraren eta Berriaren gertakari nagusien aurkezpen bitxia egiten diote.

Mus txapelketa azkarra

1.000 euroko saria zain izango du datorren otsailaren 15ean jokatu den mus txapelketan irabaziko duen bikoteak. Argi Berri Elkarteak antolatuta iazko parte hartzea errepikatzea izango dute helburu (133 bikote). Lau erregetara jokatu da eta galduz gero kanpora. Hurrengo alean izango duzue txapelketari buruzko informazio gehiago.

Goiztiri AEK informatzen

Otsaileko matrikulazio kanpaina martxan jarri du Goiztiri AEK euskaltegiak. Oraingoan, ohiko eskaintzez gain EGA eta alfabetatze ikastaro bereziak antolatu ditu. Izena emateko edota informazio gehiago behar izanez gero Santa Maria Kalea 4-2-ekz.era joan edota 943-889174 telefono zenbakira deitu besterik ez duzu.

Era berean, AEK bertatik jakinarazi nahi dute Korrika Laguntzailea izan nahi baduzu herriko hainbat taberna eta dendetan dauden bono-txartelak hartu besterik ez duzula. Laguntza bakoitza 10 eurokoa izango da eta ordainean, euskararen aldeko Korrikari lagunduz gain, Euskal Herriko hainbat lekutan deskontuak egiteko aukera emango dizun txartela eskuratuko duzu. Bonoak Arantxa, Iñaki, Orlegi eta Eroskiko tabernetan daude eta baita zenbait okidegitan ere.

Kiroldegia handitua

Majori Kiroldegia txiki geratzen ari zela eta handitze lanak hasi eta amaitu dituzte orain gutxi. Erabiltzaile kopurua goraka zihoala eta denentzat lekurik ez zegoen. Honela, fitness gela, gimnasioa handitu eta itxura berria eman diote kiroldegia. Erabiltzaileek eskertuko dute.



Jero tabernari agur

Azken 100 urtetan irikita egon ondoren bere ateak itxi ditu Garagartza Plazan dagoen "Jero" Tabernak. Urteetan herriarren topaleku izan denak ateak itxi ditu, beraz. Aurrerantzean lokalaren zer egingo den erabaki gabe dago oraindik.



Linue Zegama

Goierri 2005 Ideia Berrien VI. Lehiaketan lehen sariaren irabazle

Hori da Zegaman berehala martxan jarriko den Kooperatibaren izena. Kooperatiba hau Zegamako Udala, Inem eta Goiekiren elkarlanaren bidez orain urtebete martxan jarritako Enplegu Tailerraren emaitza da. Enplegu tailer honetan Goierriko 16 emakume langabetuek parte hartu dute, bertan linuaren ekoizpen, eraldaketa eta ehuna egiten ikasi dute, eta hamasei horietatik zazpik eman dute kooperatiba osatu eta beren bizimodu bezala lanbide hau hartzeko pausoa. Hasiera guztiak izaten diren bezala ilusioz beterik hasiko dira proiektuari bultzada ematen, jakin baitakite, hasierak gogorak izaten direla eta gogor ekin beharko diotela lanari.

Goierri 2005 Ideia Berrien VI. Lehiaketara aurkeztu eta epaimahaiak proiektu hau aukeratu du hoberena eta berritzaileena bezala, 9.000 eurotako saria emanez.

Dagoeneko egiteko gai diren produktuen katalogoa esku artean dute: mantelak, koiñak, estoreak, sukaldeko ohialak, bufanda, kutxa gaineko ohialak, tapizak e.a.

Harremanetarako 943 801661 telefonora deitu behar da. Horrezaz gain, ikastaroak ere emango dituzte, galtzeaz zegoen jarduera hau interes duenari irakasteko; bertan parte hartu nahi duenak 943 161831 (Maialen) telefonora deitu behar du.

Eduarne Albizu

Txarape eta Alderdi Eder arteko garajeen notario aurreko zozketa

Joan den urtarrilaren 26an egin zen Zegamako Udaletxean, Txarape eta Alderdi Ederren arteko orubean egingo diren garajeen notario aurreko zozketa.

Zegamako Udalak bertan garajeak egin ahal izateko kudeaketa luzea egin du azken urteotan; lehen urratsa, bere egunean egin ez zen lurren zesioa egin zen, bertan Txarape eta Alderdi Ederreko bizilagunen begiruneari esker Udalarari egin beharreko zesio hau gauzatu zen; bigarren urratsa, Proiektua idatzi eta Baldintza Pleguak argitaratzea izan zen. Horren ondorioz Saiatu S.A. eraikuntza enpresari eman zaio garaje horiek eraikitzearen lana; esan, lan horien bidez, urbanizatu gabe zegoen eremu bat urbanizatu, eta garajeen gainean plaza bat egokitu dela. Hirugarren urratsa, garajeen zozketarako izen-ematea ireki eta notario aurreko zozketa egitea izan da: Guztira 20 garaje eraikiko dira eta urtarrilaren 27an egindako zozketan 17 garaje adjudikatu ziren. Geratzen diren 3 garajeetatik norbaitek interesik balu, Saiatu S.A. enpresara jo behar du. Esan, herriko gune horretan dagoen aparkatoki gabezia eta herritarrek duten garajeen premia, etxean kotxe bat baino gehiago ia guztiok baititugu, garaje berri horiek eraikitzen direnean, era garrantzitsuan konpontzea espero duela Udalak.

Labur labur

- Otsailaren 4an, urteko legez, **San Ageda bezperako eskeia** egingo da.
 - **14:30etan** Aitxuri Herri Eskolako haurren irteera.
 - **18:30etan** Zine ondotik helduen Santa Ageda eskeirteera. Kultur Etxetik gonbidapena luzatzen zaizue bertan parte hartzeko.
- **Lourdesko Amabirjinaren Egunean**, otsailaren 11n, meza ospatuko da Jubilatu Elkartean arratsaldeko 17:00etan. Meza ondoren txokolate jana izango da bertaratuko diren guztientzat.

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua 1/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

Aholkularitza

ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi Kalea 15, behea **BEASAIN**

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak

txekin

www.txekin.net

J.M. Barandiaran eskola eta Pako Urrestarazu sarituak

Gipuzkoako Foru Aldundiak J.M. Barandiaran Herri Ikastetxea eta bertako kirol koordinatzaile Pako Urrestarazu saritu zituen orain dela hilabete, urte guztiotan kirol sustapenean egindako lanagatik. Sari honen harira eta, bide batez, azken 20 urteotan kirol munduan egin duen lanari bere merezimendua eman nahian jo dugu Pakorengana. Pakoren esanetan, *"batez ere garrantzitsuen saria Ataun bezalako herri txiki bati ematea izan da"*.

Urteetan atzera eginez, *"20ren bat"* dio kontuak atzera ostean, Ataungo eskolan kirol estraeskolarraren alde egin zen apustuaren ondorio dela dio sari hau. *"Jexux Goi-ketxeak hasiera hartatik lan izugarria egin du, eta hori aipatu beharrekoa da"*. Jexuxek eta biek kriterio berdinak zituztela kirol antolaketa inguruan eta hori, ondoren eman den garapenerako funtsezkoa izan dela gaineratzen du. Hein berean, aipagai ditu apustu horren alde bai ikastetxeko zuzendaritzak, bai eta Guraso Elkarteak eta Udalak ere egindako ahaleginak. Berezi kirol kontutan izanik garai hartan kirol koordinatzaileen figurak ez zuela egun duen pisu eta babesik.

Egindako lanaren saria

"Nire ustez, Aldundiak darabagun linea kontinuista hori saritu nahi izan du. Horrek egitura bat, antolaketa bat egotea, erantzukizunez erantzutea bermatzen baitu". Hori horrela, Diputazioak markatutako kirol eskaintzei beti erantzun dietela dio. *"Horren ondorio da urtero 9 kirol desberdinetako eskaintza izatea. Kirol heziketa bultzatzea bai-*

ta gure helburua". Eskola kirolean egin duten lanaren ondorio da *"Ataun bezalako herri txiki batean, 18-25 urte bitartean 40 lagun kirol federatuen aritzea. Hori izugarria da"*. Bide batez, Goierri eskola kirolean egiten den lana goraipatzen du.

Sakrifizio asko

"Hasieran entrenatzaile gisa hasi nintzen eta pixkanaka joan nintzen sartzen kirol eskolarrean". Dudarik ez da sakrifizio eta denbora asko eskatzen duen lana dela, nahiz eta sozialki askotan gaizki ulertua izan den. Isileko lan handia eskatzen du, beste esparru askotan gertatzen den eran, ez baitzaio behar adinako merezimendurik ematen. Baina zer eskatzen du, bada, kirol koordinatzaile lanak? *"Bi alderdi bereiz genitzake: entrenamenduen antolaketa batetik eta bestetik, gestio lanak. Azken honek eramaten du denbora gehien, horretan sartzen baita urte osoko antolamendua egitea, ditugun instalazioen arabera zein jardura bultzatuko ditugun. Taldeen antolaketa egin behar da gero, Aldundian izenak eman. Ondoren entrenamenduak koordinatu behar dira, kontutan izanik egun hurrek eskola orduetatik kanpo hainbat ekintzetan parte hartzen dutela eta horiei ematen zaiela lehentasuna. Bestalde, astero Goierri mailako koordinatzaileen arteko bilera egiten dugu, partiduen ordutegiak antolatu... Lan horretan bereziki kolaboratzaileen lana aipatu eta goraipatu nahi nuke, Kirol Elkarte inguruan ibiltzen den gazte jendea eta baita ere, gurasoen erantzun ona. Asteburuetan haurrak batetik bes-*

tera eramateaz beraiek arduratzen baitira eta esan behar da, oso ondo funtzionatzen duela". Horrezaz gain, kiroldegiko ardura ere bere gain du Pakok eta baita urtean zehar antolatzen diren ikastaro, txapelketen... antolaketa eta koordinazioa ere.

Eskolaz kanpoko kirola

Eskolan, aurtun, 9 urtetik gorako 45 haur inguru ditu bere ardurapean: Pilota, areto futbola, atletismoa eta tenisear dihardute bereziki. Honen harira, garai batean 14 urterekin beste ikastetxe batera joateak suposatzen zuen etenik egun gertatzen al den jakin nahi izan dugu. *"Egun koordinazio maila hobea dago, ez da eten hori ematen. Ataungo Kirol Elkarteak zerikusi handia du horretan. Herrian alde horretatik lan handia egiten da, kirol estraeskolarra eta federatuaren arteko lotura mantentzen"*. Eskola mailako kirol estraeskolarrean Loizabazpe egiten ari den lana goraipatu nahi izan du Pakok: kirol koordinatzaile bakoitzak bere herrian aritzeko aukera baitu eta noski, gaztetxoek ez dute batetik bestera ibili beharrik, herrian eskaintzen baitzaie kirola egiteko aukera.

Haurrek kirola egin dezaten arrazoiaren bat edo beste aipatzeko eskatu diogu: *"kirolak mesede egiten die haurrei"*. Beren garapenean laguntzeaz gain, *"autoestima lantzeko baliagarria dela, taldean onartua izateak duen garrantzia aipatuko nituzke nik. Heziketa orokorrean merezi duen garrantzia ematea beharrezkoa ikusten dut, ez gehiago ez gutxiago"*.

Herriko kirol instalakun-



tzen ustiapena eta jendearen erantzunaz ere galdetu nahi izan diogu. Erantzuna orokorrean oso ona omen da, eta bereziki aipagarria iruditzen zaio instalazio egokiak izatea. *"Adibidez, San Gregorio bezalako auzo batean astero aerobic-eko 3 ordu eman ahal izatea aipagarria da"*. Erabilerari dagokionez, kopurutan joan den urtean kirol jardueretan 1.062 orduz erabili zen Auzoeta kiroldegia eta hor barruan eskola orduak ez dira sartzen. Izan ere eskolaren erabilpenerako orduak, astelehenetik ostiralera ia 7 ordu direla kontu eginez, urteko erabilpen ordu kopurua asko igoko litzateke eta hori gurea bezalako herri batean oso positibotzat jo beharrekoa da. *"Dena den, astebukeretak erabilpena bultzatu nahiko nuke nik"*. Asteburuetan, antolatutako ekintzez gain, inork gutxik erabiltzeko ohitura baitu. Kiroldegia irekita dago eta dohain da, nolatan eta ordu konkretu batetarako erreserba egiten ez den. Kiroldegia *"guztiona eta guztion erabilpenerako dela"* jakinarazi nahi liguke Pakok, *"ez dago adin mugarik"*.

Majori, Antzizar edota Lazkao gimnasioetara joateko jendeak duen ohitura ikusirik *"behar bezala"* egokitutako gimnasia gela bat eta gimnasio bat eraikitzea izango litzateke bere behineneko proiektua edo ametsa. *"Egun dugun gimnasioa mugatu xamarra baita"*.

Agurtzane Bikuña

Santa Ageda eskeak

Santa ageda bezperan, otsailaren 4an, arratsaldean aterako dira kantu eskera. Elorri Kultur Elkartekoak, koplari eta trikitilariekin iluntzean aterako dira kalez kaleko eskera. Ondoren, afaria izango dute elkartean.

'Segura historian zehar'

Joseba Intxaustik zuzendu duen liburuaren aurkezpena, otsailaren 7an, iluntzeko 7etan, udaletxean izango da herritarrentzat. Herrialde mailako prentsaurreakoa, berriaz, egun berean, goizez izango da Donostian. Liburua, estankoa jarriko da salgai. Liburuaren eskaintza egiteko, herritik kanpora bizi diren herritarren helbideak lortzeko, ohar bat banatuko du Udalak etxez etxe.


Nazioarteko sega txapelketa

Irailaren lehen asteburuan maduran jokatu den txapelketa antolatzeke lehen bilera zabala egin zen urtarilaren 16an. Herritar ugari bildu zen eta zenbait lan batzorde osatu ziren lanean hasteko: koordinaketa, trafikoa, zelai zainketa, publizitatea, lorpenak, karpa, jaialdia eta herri afaria, batzordeak, besteak beste. Hurrengo bilera otsailaren erdi aldera izango da.

Ikerketa historiko-arkeologikoa

Aurkezpena gaur, urtarrilak 31, 19:00etan, Kultur etxean

Arantzadi Zientzia Elkartek, Udalaren inizatibaz eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz egin berri duen Segurako kasko historikoaren ikerketa historiko-arkeologikoaren azalpena egingo zaie gaur herritarrei. Azterlana 1997tik 2001era bitartean gauzatu dute, Juanxo Agirre, elkarteko idazkari nagusiak, Alex Ibañezek eta Alfredo Morazak. Hirurak arkeologo eta historialariak dira eta eurek egingo dute gaurko aurkezpena. Hainbat



Ikerketa honetan eta aurretik, Seguran egindako azterketa arkeologikoak.

artxibotegietako dokumentu historikoetan eta azterketa arkeologikoetan oinarrituta, herri kaskoak mendez mende, etxez etxe eta gunez gune izan duen bilakaera ikertu

dute. Bertan gainera, ondusun arkeologikoaren babeserako neurriak proposatzen dira. Bi tomotan banaturik, banaka-banaka, 120 erregistro gauzatu dituzte.

Labur-labur

Eneko Agirrezabalek 3. postua lortu zuen jubentzetan (7.000 m), Lasarten korritu zen Donostiako krosean, urtarilaren 26an.

Kirol eskolarra. Urtarrilaren 26an, Idiazabalgo krosean, neska alebintetan Leire Arrietak 4. eta Maria Gerrikok 6. egin zuten, 1.000 metrotan. Igande honetan kros taldekoek Gipuzkoako txapelketa izango dute Zestoan. Zapatu honetan, etxean, 9:30ean hasita hiru saskibalo partidu izango dituzte.

Atsedeen jubilatuen elkarteak antolatu dituen punttu, brixka, tute eta mus txapelketak otsailean hasiko dira.

Segurako herriaren plan estrategikoari buruzko emaitzak azaldu zizkien 'Xabide' etxe espezializatuak udal ordezkari eta batzordekideei,

atzo, urtarrilak 30. Aurrerago herritarrei zuzendutako aurkezpena egingo da.

Uraen erabilpenaren inguruko zirkuitu kulturalaren proiektua bukatzeaz du Udalak. Bi hilabete inguru barru

ibilbidea inauguratzea espero da. Egitasmo horretarako erreka garbiketa amaituta, drenaje lana besterik ez da falta.

Joseba Telleria



Segurako jubentilen taldea.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Errejonalkak: Elgoibar 3-4 Segura. **Jubentilak:** Segura 1-0 Eskolapio. **Kadeteak:** Aizkorri 3-2 Mutriku. **Infantilak:** Aizkorri 1-3 Touring.

Asteburuan etxean: Errejonalkak: Segura-Eibartarra, zapa-tuan, 17:00etan.

Bola denboraldia

Taldeko saioarekin hasi zen bola denboraldia errege bezperan. Bertan, herritarrek 5. geratu ziren. Urtarrilaren 19an erre-jularitateko proba hasi zuten. Ondoren, Goierriko txapelketa, Gipuzkoako banakakoa, Lehendakari saria eta Euskadiko txapelketa izango dituzte.

Imanol Agirre

Urtarrilaren 26an, Zerainen jokatu zen erregularitate txapelketako 2. proban Imanol geratu zen lehenengo, 47 birla jota.

2003ko ekitaldi bereziak

- Segurako jatorrizko inauteria. Hartzaren berreskuraketa. Otsailaren 28an.
- Laiotz Herri Eskolan Kultur Astea. Otsailaren 28tik martxoaren 7ra.
- III. Lore eta Landare azoka. Martxoaren 23an.
- Iparra-Hegoa. Martxoaren 24tik 30era.
- Nazioarteko Sega txapelketa. Irailaren 5etik 7ra.
- II. Hegazti eguna. Irailaren 28an.

ZERGATIK HAUTATU DUGU ANDRAMENDI?

- ✓ Haurrak maite dituen ikastola delako eta haurrek maite dutelako
- ✓ Euskaltzaleak garelako
- ✓ Haur Hezkuntzaz geroztik eleanitzak garelako
- ✓ Idazkera, logika eta arte-lanketa goiztiarra lantzen dugulako
- ✓ Adimen Emozionaleko urratsetan hezten dugulako
- ✓ Euskal Herriak bere identitatea indartzeko ikastolak behar dituelako
- ✓ **ZERBITZUAK**, Hezkuntza proiektuan txertatuak ditugulako
- ✓ **HAURTZAINDEGIA** eta **JANGELA** urte osoan ditugulako
- ✓ **MEC**-eko **HEZKUNTZA KALITATE**ko sariketan Euskal Herriko finalista garelako (EFQM-ren arabera)

📍 **Finean, Kalitatezko Hezkuntza bermatua dugulako**

eta hitzez adierazi gabe ere, bihotzak dituen
milaka arrazoi medio


GARENA GARELAKE



0-12 urte



Urbialde enparantza, z/g • **BEASAIN** • Tel.: 943 88 96 17
E-posta: beasain@ikastola.net • www.andramendi.com



Kontxi Zalduak odol-emaileen zilarrezko domina jaso du



Eskualdeko odol-emaileen elkarrekin urtea amaitzeko zegoenean, urtero bezala, beraien eguna ospatu zuten eta bertan urte eta zilarrezko domina jaso zuten artean Kontxi Zaldua herritarra dago, 25 aldiz odola eman izanagatik zilarrezko domina jasotzen. Berarekin eta elkarrekin lehendakaria den Jon Iñaki Rezustarekin izan gara amaitu berria den urtearen inguruan hizketaldi bat egin eta urte berriari begira zein asmo dituzten jasotzeko.

Ormaiztegiko odol-emaileen elkartea egun 200 odol-emaile inguruk osatzen dute. Kopuru hori herriko odolemaileez gain Ezkio-Itsaso eta Gabiriakoek osatzen dute. Urtean bi odol ateraldi egiten dira herriko mediku kontsultorioan, bata otsailean eta bestea irailean.

Jon Iñaki Rezusta

Urte askotan zehar Ormaiztegiko odol-emaile elkarrekin lehendakaria Miguel Angel Imaz izan da. Orain bi urte inguru Jon Iñaki Rezustak lekuko hura bere gain oso gustura

hartuko zuela eta horrelaxe eskaini zen. Harrezkero berak ordezkatu izan du Miguel Angel.

Jon Iñaki itxaropentsu agertu zaigu azken urte hauetan herriko odolemaile elkarrekin hartu duen norabidea kontuan izanik. Hain zuzen bere hitzetan "odolemaile izateaz geroz eta gehiago kontzientziatzen ari gara herritarrak, odola ematea bizi ematea dela gero eta gertuagotik ikusten baitugu". Amaitu berria den urteko datuek Jon Iñakik aipaturikoa begi bistan jartzen digute "15 odolemaile berrik izena eman dute. Gainera berriak sartzea beti erabat pozgarria bada ere, are gehiago jakinik odolemaile horietatik gehienak gazteak direla, hain zuzen 18-20 urte bitartekoak. Beraz, itxaropentsu egoteko moduan aurkitzen gara, etorkizuna hor baitago", dio Jon Iñaki Rezustak.

Herriko odol-emaile elkarrekin etorkizunari begira zein erronkaren aurrean aurkitzen den ere galdetu diogu. "Berrikuntza edo bezala aurrera begira urteko bi odol ateraldi

dietatik hirurako pausoa eman nahi dugu. Horretan ari gara eta proba egiteko asmoa dugu", adierazi digu.

Bestetik, Jon Iñakik biziki eskertu nahi izan ditu odol ateraldi bakoitzean izaten dituzten laguntzaileak, "beraiek gabe odol ateraldiak aurrera ataratzea ezinezkoa izango litzateke: Elozegi ardotezia, Murua harategia, Deba harategia, Iñaki autozerbitzua, Euskadiko Kutxa, Lazti garraioak, Otordu, Medikuntza kontsultoriokoei eta Udalarari". Odol ataraldietan laguntzaile izaten dituztelako elkarrekin izenean eskerrikeria beronenak bidaltzen dizkie Jon Iñakik.

Kontxi Zaldua

Amaitu berria den 2002. urtean zilarrezko domina jaso duela eta Kontxi Zalduarekin izan gara. Lehenik eta behin gure zorionik beronenak bidaltzen dizkiogu merezimendu osoz jaso zuen dominagatik eta urte hauetan guztietan eskaini izan duen laguntzagatik. Ondorengo galderak luzatu dizkiogu Kontxiri:

Noiztik zara odol-emaile?

Ez naiz oso ondo gogoratzen baina urte asko dira, 20tik 25era bitartean.

Zenbat aldiz eman duzu odola?

Jadanik 28 aldiz eman dut.

Urtean zenbatetan ematen duzu?

Herrian bi ateraldi izaten dira urtean, eta inoiz ez dut hutsik egin. Hasi nintzenetik urtero bi aldiz ematen dut.

Asko kostatzen al zaizu odola ematea?

Ez, niretzat ez da inola ko sakrifizio, oso gustura egiten dut. Eta gainera jakinik beste laguntzeko dela, orduan eta gusturago egiten dut. Beste pertsona batzuei bizitzen laguntzen diegunez eta niri ezer kostatzen ez zaidanez, gustura egotekoa da.

Pentsatu izan al duzu inoiz domina jasotzera iritsiko zinenik?

Inondik inora ere ez. Ez dut uste odola ematera inor dominagatik joango denik. Dena den, elkarrekin duen jarrera hori eskertzekoa da.

Aitziber Murua

PSIKOLOGI KLINIKOA

AGI

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Eikargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

TXIMA'S

ILEAPAINDEGIA

Zatoz eta aurkitu zure estiloa
Tratamenduak Korteak
Koloreak Moldeatuak

ESTETIKA ZENTRUA

Biodepilazioa:
Zirkulazioarentzat, barizentzat eta hanka nekatuentzat onuragarria
Ilea ahultzen du
Azala garbitzen du

Aurpegiko tratamenduak produktu naturalekin

Oriamendi kalea, Etxuri etxea BEASAIN Tel./Faxa: 943 88 32 52



Eski irteera

Urtero bezala, Gailurrerantz kirol elkarteko Mendi Sailak Formigalera eski irteera antolatu du. Irteera otsailaren 15 eta 16an izango da. Larunbatean irtengo dira goizeko 6:00etan herriko plazaatik.

Ondorengo hauek dira ordaindu beharreko prezioak:

Lanean ari direnak:

Alokairurik gabe: 85 euro
Alokairuarekin: 100 euro (eskiak); 125 euro (snow)

Gainontzekoak:

Alokairurik gabe: 70 euro
Alokairuarekin: 85 euro (eskiak); 110 euro (snow)

Kostu honen barnean dago autobusa, larunbateko afaria, igandeko gosaria eta gaua pa-

satzeko Jakako Eskolapioetako aterpea.

Norberak eraman beharko ditu larunbateko eta igandeko bazkaria, arropa egokia, eguzkitarako betaurrekoak, krema, eskularruak...

Irteerarako joan nahi duenak Kultur Etxean eman behar du izena, otsailaren 7a baino lehen. Dirua Kutzako 2101 0075 000002580579 zenbakian sartu behar da.

Zubi-buru elkartearen junta berria

Urtarrilaren 19an egin zuen Zubi-Buru elkarteak urteko batzarra. Urteko balantze ekonomikoa eta egindako

www.zaldibia.net laister sarean



Zaldibiako Udalak dagoeneko eskuratu du www.zaldibia.net izeneko domeinua, eta Aste Santu aurretik web gunea martxan jartzea espero du. Urtarrilaren 30ean herriko talde eta elkarte guztiekin biltzekoa zen Udala orriaren osaketaz hitz egiteko. Horrez gain, herritarrei dei egiten dizue zuen ekarpenak edo ideiak Kultur Etxera helarazi ditzazuen. Web guneak Zaldibia domeinuarekin zure helbide elektroniko propioa sortzeko aukera eskainiko du, besteen artean.

Eduarne Soraluze

ekitaldi kulturalen berri emateaz gain, junta berria nork osatuko duen erabaki zuten. Juntako egonaldia bi urtekoa da eta hamabi lagunek osatzen dute. Horietako sei, Gabriel Luke, Arantxa Garmendia, Daniel Beloki, Agurtzane Azurmendi, Mariaje Aristi eta Muriel iazkoan aritu ziren eta aurtengoan ere ariko dira. Horiekin batera, datozen bi urterako sartu direnak, berriz, honakoak dira: Eñaut Hernandez, Unai Matxain, Kaie-

tano Dorronsoro, Aritz Zeberio, Xabier Olano eta Xabier Iraeta.

Gaztelu elkartearen urteko batzarra

Gaztelu Ehiza eta Arrantza elkarteak otsailaren 7an, ostirala, egingo du urteko batzarra. Lehen deialdia 21:30etarako egin du eta bigarrena, berriz, 22:00etarako. Juntako kideak lerro hauetaz baliatzen dira bazkideei batzarrera joateko deialdia egiteko.

Santa Fetako bideo emanaldia

Aurtengoan ere, Santa Fe jaietan grabatu zen bideoaren emanaldia izango da Kultur Etxean. 2002ko jaiak gogoratu nahi badituzue ager zaitezte otsailaren 6an, osteguna, arratsaldeko 17:00etan. Saio honetara iristeko aukerarik ez baduzue 19:30ean izango da hurrengoa, leku eta egun berean.

IRAGARKIA

Zaldibiako udalbatzak 2002ko abenduaren 18an egindako bileran erabaki zuen, onestea **"ZALDIBIAKO HILERRIAREN ERREFORMARAKO PROIEKTUA"**

Proiektu hori Pedro Etxaniz Arkitektoak idatzi zuen 2002ko azaroan.

Proiektuan sartutako zerrendan ageri diren 41 hobiratuak izango dute lanen eragina (1957koa 1, 1977koa 1 eta 1988tik 1992ra 39). Indarrean dagoen Hildakoei buruzko Osasunbide Poliziaren araudia ezartzen duen 1974ko uztailaren 20ko 2263 dekretuaren 59. artikulua ezartzen dituen 10 urte baino gehiago igaro dira hobiraketa horiek egin zirenetik.

Aurrean adierazitako erregelamendu horren 59. artikulua ezartzen duena betez aurreko horren berri ematen da, adieraziz, proiektu horretan sartutako obrak kontratatzeko espedienteari ekingo zaiola, iragarki hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean, udal honetako iragarki tauletan, Egunkaria, Gara eta El Diario Vasco egunkarietan eta Goierritarra aldizkarian argitaratu eta hiru hilabete igaro ondoren, obrak hasi ahal izateko.

Jakitera ematen da, hilerri horretan lurperatutako senitarteak eta gaineratiko interesatuek, beren eskubideen arabera neurriak hartu ahal ditzaten, aurrean adierazitako hiru hilabete epearen barruan,

Ohartarazten da ateratako hezur eta hondakinak erraustea edo hilerrian dagoen hilobi komunean hobiratzeara aurreikusten duela proiektuak. Banakako hezurtokiak erabiltzeko aukera ere badago.

Banakako hezurtoki horietan haiek gordetzeko aukeraz baliatu nahi dutenek, udalean horren berri eman beharko dute idatziz ahalik azkarren, kontuan hartuz jasotako eskaerak, dauden hezurtokiak baino gehiago badira zozketaren bidez erabakiko dela eta erantzun ezinik geratzen diren eskaeren titularrak, bere eskubideen arabera beste aukeraren bat erabili nahi badute hori ere, hiru hilabete epe barruan egin beharko dutela. Aukera honetaz baliatzen denak indarrean dagoen tasa ordainduko du, gaur egun 150,25 eurokoa dena.

Zaldibin, 2003ko urtarrilak 10.
ALKATEORDEA



**ZALDIBIKO
UDALA**

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



Zubia berritzen

Herri erdiko zubia itxita dago astelehenaz geroztik. Trafikoa errazteko asmoz, zubia zabaldu behar dute eta 3 hilabetetan itxita egongo da. Bi-

tartean herrira sartzeko bariantea erabiltzea gomendatzen da. Herriaren alde batetik bestera pasatzeko Areso aldetik ere joan daiteke, nahiz

Bi ikastaro

Udalak bi ikastaro antolatu ditu. Kultur etxean emango dira eta informazio gehiagorako edo izena emateko Udaletxean bertan edo 943805411 telefonoan, Miren Larrañagarengana jo behar-ko da.

Tiffany's eta beruneztatze artistikoa

Tiffany's eta beruneztatze teknika erabiliz eta oinarri batetik abiatuz, beiraz apaindutako leiho, ate eta apaingarriak egiten ikasiko da. Ostiraletan 17:00etatik 19:00etara.

Argazkigintza eta bideo ikastaroa

Argazki eta bideogintzak eskaintzen dituzten adierazpen eta gaitasunak ikasiko dira. Bi bitarteko hauen teknika eta erabilpen desberdinak, erretratu, paisaia, erreportaia. Ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara.

eta bertan egiten ari diren lanak direla eta ez oso bide egokia izan.

Santa Ageda bezpera

Aurten ere Santa Ageda bezperan, otsailak 4, herriko tal-

de bat trikitilari eta koplari-kin santa eskean ibiliko da. Goizetik hasita Lazkaomendi eta herriko hainbat baserrietan ibiliko dira. Arratsaldean herrian zehar ere ibiliko dira kantari.



Eskulan ikastaroa

Azken urte hauetan bezalaxe, aurten ere eskulan ikastaroa martxan jarri nahi da herrian. Otsailaren 3a izango da ikastaroa hasteko eguna eta Kultur etxean emango da ikastaro hau. Astean behin izango da

ikastaroa, astelehenean hain zuzen ere, 14:30etik 17:00etara. Izena emateko eta matrikula ordaintzeko udal-txetik pasa, bulego orduetan. Irakaslea Iñaki izango da beste urte batzuetan bezala.

KZ gunea

Abenduaren amaieran martxan jarri ziren Kultur etxean ordenagailu eta interneta eza-gutzeko ikastaroak KZ gunaren bitartez. Dagoeneko bi taldek egin dute ikastaroa eta aste honetan bertan hasi da ikastaroarekin hirugarren taldea. Oraindik norbaitek ikastaroren batean izena emateko asmoa izanez gero Maite Zabaletarekin harremanetan jarri.

Santa Ageda bezpera

Ohitura zaharrari eutsiz eta Euskal Herriko beste txoko askotan bezala, herriko gazte talde bat baserriz baserri ibiliko da Santa Ageda koplak abestuz.

Iñaki Ugalde

GERTU aholkularitza



txekin

ENPRESA BERRIAK SORTZEKO
DOHAINEKO AHOALKULARITZA
ETA SUBENTZIOAK

BEASAIN

gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



Joxemari Urteaga koralista lazkaotarrak parte hartuko du:

Argiuneak Kamara Korala taldearen kontzertua izango da otsailaren 8an

Kilometroak 2003ko ekintzek aurrera jarraitzen dute.

Otsailerako hainbat kultur ekintza dituzte aurreikusita antolatzaileek, oraindik bat edo beste zehaztu gabe dituzten arren. Ale honetan ekintza horien zertzeladak jasotzen dira, eta zehaztuta ez dauden ekintzen berri datozen **GOIERRITARRA** aldizkariko aleetan izango duzue.

Kronolijikoki aipatu behar den estraineko ekintza Argiuneak Kamara Koralak otsailaren 8an eskainiko duen emanaldia da. 1988. urtean Ondarroan sortutako korala da eta gaur egun 22 lagunek osatzen dute, Estibalitz Arrizabalagaren zuzendaritzapean.

Taldeakideek orain arte eskaini dituzten ekitaldiei dago kienean, azpimarragarrienak honako hauek dira: Unanue Udal Kontserbatorioaren inaugurazio ekitaldia, Alfredo Kraus tenore sonatuaren aurrean, 1991. urtean; Errioxar Komunitateko Orkestra Sinfonikoarekin batera Lo-

groñon egindako kantaldia, 1992. urtean; Salamancako San Blas auditorioan eskainitako emanaldia; Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan 2001. urtean egindako Goi Mailako Zuzendaritza Korala azterketan goreneko kalifikazioa lortu zuten.

Etengabeko hobekuntza

Koral honen ibilbidea, hala ere, ez da hemen amaitzen, bere partaideak biderei ondo lotu baitzaizkio. Horren erakusgarri da koral honek berekin dituen hainbat ezaugarri

aipatu besterik ez dago: Etengabeko hobekuntza, ahots-technikari nahiz taldearen kohesioari dagokionez; etengabeko berrikuntza erreperorioan nahiz koreografian; kasuan kasuko egokitzapenak, hizkuntzari nahiz jardunaldiaren gaiari dagokionez; azkenik, aipa dezakegun beste ezaugarri bat elkarlanarena da, izan ere, koral honek inguruko kultur elkarteekiko elkarlana eta ingurumenaren garapenarekiko konpromezua baitu Lea-Artibai eskualdean.

Joxemari Urteaga

Koral honetako partaideei buruzko berri ugari izan dugu, baina tartean bada aipamen berezia merezi duen kide bat, Joxemari Urteaga koralista hain zuzen. Urteaga Lazkaon jaio zen 1961. urtean, baina aspaldidanik bizi da Ondarroan. Han Zubi Zahar ikastolan irakasle modura ari da lanean.

Joxemari Urteagak herriko Bolo Bolo aldizkarian idatzi ohi du, ikas liburugintzan aditua da eta literaturan hainbat sari irabazi ditu. Horrez gain, zenbait ipuin argitaratu ditu han-hemenka: esaterako, 2001. urtean 'Ordaina zor nizu' izeneko nobela argitaratu zuen Elkar argitaletxearekin. Aipagarria da, gizon hau Ondarroako kultur eskaintzaren garapenean giltzarritzko eragilea dela.

Koral honen ahotsak aipatu ditugun moduan, ezin ahantz ditzakegu, horiekin batera parte hartzen duten musikariak. Hiru dira ahotsei lotuta emanaldia eskainiko duten instrumentu-joleak: Iñaki Maruri arituko da pianoan, Miren Barrutia flautarekin eta Maite Urdingio klarinetearekin.

Disko-festa Lazkaon, otsailaren 22an

Ondarroako Korala eskainiko duen emanaldiaz gain, aipatzeko da, hilero, otsailetik hasita, Maizpiden egin ohi diren tertulietara pertsona ospetsuren bat ekartzeko asmoa dagoela.

Horrekin batera, ezin aipatu gabe utzi otsailaren 22an Lazkaon Disko-festa izango dela. Dena den, aipaturiko azken bi ekintza horien berri zehatzagoak hurrengo alean izango dituzue.

Beharpenak Kilometroak dendan

Eta orain arte esan ez badugu ere, ez ahaztu Kmk03 denda irekita dagoela, eta %30eko beharpenak izango dituzuela, neguko jantzieta. Azkar ibili, bukatzerako!



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA



**Nafarroa
Etorbidea, 9**

EGUZKI
INPRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

ZINEA

ITSASONDO:

Otsailak 7: 'Despertando a Ned', 22:00etan, Ertotxen.

ORDIZIA:

Urtarrilak 31: 'Harry Potter y la camara secreta', 22:15ean, Herri Antzokian.

Otsailak 1: 'Harry Potter y la camara secreta', 19:30ean eta 22:15ean, Herri Antzokian.

Otsailak 2: 'Harry Potter y la camara secreta', 16:45ean eta 20:00etan, Herri Antzokian.

Otsailak 3: 'Harry Potter y la camara secreta', 19:30etan, Herri Antzokian.

GOIENIZ:

Otsailak 6: 'El empleo del tiempo', 21:00etan, Usurbe antzokian.

GOIENIZ

'El empleo del tiempo'
Laurent Cantet
(Frantzia. 2001)

Antza denez, Vincent pozik bizi da aste osoan etxetik kanpo ibilita, bate-tik bestera negozio bilera garrantzitsuetara joanez. Emazte eta seme-alabekin azalatik baino ez du hitz egiten lanari buruz. Baina Vincenten ibilbide profesional oparoa asmakeria hutsa da. Bere aholkulari postua galdu duela familiar eta lagunei esatea ausarta ez, eta behartuta, Ginebran goi mailako lanpostu batean ari balitz bezala dabil gezurretan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Jauregi
(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Otsailak 1-2: Arriola
(Plaza Nagusia, 10 - Ordizia). 943 880628.

Otsailak 8-9: De la Cuesta
(Nafarroako Etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

antzerkia

BEASAIN:

Urtarrilak 31, Hika taldearen 'Ai ama' antzezlan, 22:15ean, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Otsailak 7, Kanpingags taldearen 'Biblia osoa gutxi gora behera' antzezlan, 22:15ean, Herri Antzokian.

ikastaroak

BEASAIN:

Otsailaren 11tik aurrera, Mekanografia ordenadorez ikasteko ikastaroa izango da, asteartean, asteazkenetan eta ostegunetan, 9:15etatik 10:15era, Asmube elkarteak antolatuta. Izena emateko elkartearekin jarri behar da harremanetan.

LAZKAO:

Otsailetik aurrera, Tiffany's eta Beruneztatze artistikoko ikastaroak eta Argazkigintza eta bideo ikastaroak. Lehena ostiraletan 17:00etatik 19:00etara, eta bigarrena, ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara. Taldeak irekita daude. Izen-ematea, 943805411 telefonoan.

musika

IDIAZABAL:

Urtarrilak 31, Drindots taldearen kontzertua, arratsaldeko 20.30etatik aurrera.

Otsailak 1, Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia arratsalde eta gau partean.

Otsailak 2, Gladys Mercado y Mariachi Los Charros taldearekin dantzaldia, 23:30ean.

Otsailak 4, Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, 19:30etik goizaldera arte.

LAZKAO:

Otsailak 8, Argiuneak Kamara Lokalaren emanaldia, Kilometroak 2003 ekitaldien barnean.

bertsoak

IDIAZABAL:

Otsailak 4, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolarien saioa, 12:00etan.

pailazoak

IDIAZABAL:

Otsailak 3, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen 'Katxi-porreta' ikuskizuna, 17:00etan, pilotalekuan.

o s k a r b i
o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04

kale Nagusia 34 BEASAIN

Tel. 943 88 19 44

kale Nagusia 25 ORDIZIA



PALACIO ORIENTAL

JATETXE TXINARRA


東園酒家

× Kalitate eta zerbitzu hoberena

× Etxerako zerbitzua Goierri osoan

☎ 943 725 243 Labeaga, 33 H URRETXU

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu

Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik

larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik

Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere irekita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Urte
guztian
zehar
zabalik



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

AMEBI



ASTELEHEN
GAUETAN
ITXITA

Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA



Egunero
zabalik

Zatoz lagunarteko
giroaz goatzera!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

Etxebizitzak

salgai

➡ Seguran etxe adosatu salgai terrenoarekin. Berria. Oso polita. 699827096.

➡ Benidorm-en etxebizitza salgai. Hondartzatik 300 metrora. 2 logela eta sukalde-egongela. Igogailua eta aire egokitua. 696413165.

➡ Ordiziako Urdaneta kalean etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, komuna. 943885664.

➡ Donostiako geltokiaren ondoan dagoen pisu bat salgai. 130 metro koadro. 605764355.

➡ Ordizia erdian pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Kanpoaldera ematen du. 653709587.

konpartitu

➡ Gasteizen pertsona bat behar da pisua konpartitzeko. Bakarkako logela eta berogailu zentrala. 637990159.

errentan eman

➡ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretarako. 943533981.

➡ Ordiziako Ordizia kalean (taxi geltokiaren ondoan) pisua alokatzen da. 943882928. Gaue-tan deitu.

Animaliak

salgai

➡ Larre behi limousin eta mestizoak salgai. 943593157. Agustin.

opari

➡ Tekel arrazako zakur gaztea opari. 943161828.

Bestelakoak

salgai

➡ 674/70 zaldiko Lamborghini kross markako traktorea salgai. Kabi-na, pala-tenias doble efektokoa. 2.500 ordu. Egoera onean. 943881802.

➡ Behiak jezteko makina salgai. Cerezo markakoa. Prezio onean. 943180426.

➡ Sofa, bi eserleku eta mahai bat saltzen dira. 300 euro. 943027790.

➡ Hiru akumuladore berogailu salgai, berri berriak. Erdi prezioan. 656723688.

➡ Egurrezkoa sukaldea salgai. 652755173.

➡ Domena markako plantxa galdaraduna salgai 39 eurotan. Erabili gabea. Dendan 90 euro balio du. 658724974.

➡ Sony markako musika aparailua salgai. 80 euro. 658724974.

➡ Battle markako enfardadora salgai. 943593157. Agustin.

➡ Peugeot 205 GTIaren lau llanta kubiertekin salgai. 300 euro. 606206157.

➡ Masajeak emateko 'Ekopostural' markako

kamila salgai. Berr-berria, 70x182 cm. 687865494 (Aitziber).

➡ Erabilitako paletak salgai. 943885950.

➡ Sutarako egur iharra salgai. Bi metrora moztuta. 943723504. Iluntzetan deitu.

➡ Garbiketarako egiteko desbrozadora salgai. 943800174.

➡ Errezil sagar ekologikoa salgai. Oso ona. Mutiloa. 943160986.

➡ Egurrezko sukaldea salgai, Wamsler markakoa. Bi urte, berri-berria. 943180020. Gaue-tan deitu.

opari

➡ Bi ohe turkiar eta bi ohe-horma. 1,80 x 0,90 neurrikoak laurak. 943450697.

galdutakoak

➡ Aizkoate azpian Peugeot markako auto bateko giltzak aurkitu dira. Lazkaoko Udaleko bulegoetan galdetu.

afizioak

➡ Golf-zaleen bila nabill Goierri, zelai bat alokatzeko eta jolasteko. 943886610.

➡ Trikitixa taldea osatzeko baxu jolea behar da. 680328320. Iñaki.

Ibilgailuak

salgai

➡ Valver 410 markako karabana salgai. Sei pertsonentzako edukiera du eta egoera onean dago. Bere prezioa 1.000 eurokoa da. 943085405 eta 600372425.

➡ Peugeot Boxer markako furgoneta salgai. Motorra berria dauka. 943881982.

➡ Piaggio markako motoa salgai. Egoera onean. 680641401. Aitor.

➡ Citroen C-15 dieselala salgai. SS-AV. Lagundutako direkzioa. 667809974.

➡ Ford Fiesta XR2 autoa salgai. Ekonomikoa. 943886506. Gauez deitu.

➡ Derbi Senda-R motoa salgai. 1998. urtekoa. Ondo zaindua, ex-trekin. 943887913. 9etatik aurrera deitu.

➡ Renault Espace furgoneta salgai. Diesela. SS-AK. 943886461.

➡ Peugeot 306 autoa salgai. 1.8 injekzioa. SS-BC. Automatikoa. 652762479.

➡ Volkswagen Golf GTI autoa salgai. SS-AJ. Prezio interesgarria. 943161587.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

➔ Kroseko motorra salgai. KX 85. 2001 urtekoa. Egoera onean. 943887369.

➔ Ergo markako karabana salgai, sukaldearekin. 2.100 euro. 669800758. Edurne.

➔ Suzuki maxi motorra salgai. Bi hilabetez erabilia. 669800758. Edurne.

➔ Volkswagen Caravel markako autoa salgai. Zortzi plazatakoa. 620256197.

➔ Opel Astra autoa salgai. 1.4 injekzioa. SS-AP. Egoera onean. 943882156. Iluntzetan

➔ Bultaco Lobito markako motoa salgai. 1999. urtekoa. 1.000 euro. 639663569

Lana

eskaintzak

➔ Neska euskalduna eskaintzen da garbiketa enpresetan lan egin, pertsona helduak zaindu edota orduka lan egiteko. Idiazabal inguruetan bada hobe. 620343576.

➔ Jatetxe edo tabernaren batean lan egingo nuke asteburuetan. Ostiral gauetik igandera. 653744914. Mikel. Euskalduna.

➔ 18 urteko neska bat eskaintzen da lanerako, bai dendatan, bai haurrak zaintzeko. Ordiziarra. Euskalduna. 615782184. Saioa.

eskaerak

➔ Emakume bat behar da Zaldibian etxeko lanak egin eta otorduak prestatzeko. Goizeko 11:00etatik 15:00etara. Goizez deitu. 943889667.

➔ 'Neska edo emakume', denbora libre eta lanerako gogoia baduzu, deitu 9etatik 13etara 943214228 telefono zenbakira.

➔ Ordiziako Herriko tabernan barran lan egiteko zerbitzaria behar da. 630931454.

➔ Neska bat behar da Ordiziako taberna batean lan egiteko. 652722638.

➔ Harategian eta arraindegian lan egiteko neskak behar dira Beasainen. 657795967.

➔ Goierriko enpresa batek lau galdaragile behar ditu. 4-6 urteko esperientzia. Lanpostu fijoak. Interesatuak honako helbidera bidali behar dute curriculumak: Mirakontxa 4, behea. 20.007 Donostia.

➔ Idiazabalen neska bat behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 679389420.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritzak

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

FRESATZAILEA
Goierri. Erref. 95241/4

FRESATZAILEA
Urolan. Erref. 94924/4

SUKALDARIA
Donostialdean. Erref. 95077/1
BOST GIZARTE HEZITZAILE
Debagoienan. Erref. 94555/3

BI GALDARAGILE
Tolosan. Erref. 93848/4

TURISMO AGENTEA
Urola Garaian. Erref. 95174/4

INJENIARIA
Zamudion. Erref. 95079/3

OPTIKAN DIPLOMATUA
Donostialdean. Erref. 94877/4

KLIMATIZAZIOAN ADITUA
Donostialdean. Erref. 93182/2

GIZARTE ZERBITZARIA
Donostialdean. Erref. 94280/3

INJENIARI TEKNIKO
Donostialdean. Erref. 94721/3

ELEKTRIKARIA
Urola Garaian. Erref. 95050/5

AGENDA 21ean ADITUA
Gasteizen. Erref. 95194/2

ENTSEGU EZ SUNTSITZAILEETAN TEKNIKARIA
Donostialdean. Erref. 95544/1



Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3
ORDIZIA

● Pintxo hotz eta beroak

● Ogitarakoak



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

Ziklo-kroseko denboraldi amaitu berriaren emaitzak eta balantzea

Goierriko txirrindulariak bikain

Goia jo dute Goierriko ziklo-kross txirrindulariek orain dela astebete Ispazterren bukatu berri den denboraldian. Maila guztietan mutur-muturrean ibili dira, eta azken urteotan kirol diziplina honek Goierriin eta beste hainbat lekutan izan duen beherakadari astindu ederra ematea lortu dute. Hona hemen eskuratu dituzten sari eta emaitzak.

Zugaitz Ayuso itsasondorria da momentuko Goierriko ziklo-kross munduan erreferente nagusia. Ayuso elite mailan aritu da azken urteotan, eta horren erakusgarri da bihar eta etzi Barin (Italia) jokatu-ko diren mundialetan parte hartzeko txartela eskuratu izana. Harekin batera, 23 urteko azpiko mailan, Oinatz Munduate txirrindulari idiazabalarra aritu da, baina kategori honetan lehiatzen zuen lehen urtea zela kontuan har-

tuta, ez du beste munduko emaitzik lortu. Ayusok adierazi digunez, "hori normala da, baina Oinatzek ilusioa eta progresioa badu, eta hori da garrantzitsua".

Denboraldi ona

Iragan berri den denboraldian balantze txiki bat eginez, argi-ilunak ezagutu dituela adierazi du Ayusok: "Garai-penak lortu ditut, eta postu onak ere bai. Denboraldia oso gogor hasi nuen, baina bukaerarako, nekea dela medio, eta izandako aberia eta osasun arazo txiki batzuegatik, ez naiz nahi bezala ibili. Hala ere, gustura nago egindako denboraldiarekin. Gainera, ilusio handiarekin noa mundialera".

Goierriko ziklo-krosak izan duen gorakadaz galdetuta, gauzak garbi ditu Zugaitzek. Aurrendenboraldian gogor entrenatu dutela dio, eta esperientziak asko laguntzen duela. "Txirrindulari asko gaude, giro ona dago, eta hori antzematen da korritzeko garaian", azpimarratzen du.



David Seco busturiarra eta Zugaitz Ayuso itsasondorria Idiazabalgo lasterketa hasi aurretik. Asteburu honetan Barin (Italia) jokatu-ko diren mundialetan izango dira biak.

Aurtengo palmaresa elitean

Gipuzkoako Txapelketa: Zugaitz Ayusok Aizarnazabalen jokatu-ko Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen.

Euskal Herriko Txapelketa: Beran, Nafarroan, jokatu zen Euskal Herrikoan laugarren postua lortu zuen.

Espainiako Txapelketa: Asturiasko Sotondio herrian jokatu zen Espainiakoan laugarren sailkatu zen, bi segundurengatik.

Posturik txarrena: Igorren, Bizkaian, lortu du denboraldiko posturik txarrena, hamalaugarren postuan bukatu baitzuen.

IKASTEK AKADEMIA

Joan Iturralde, 5 BEASAIN
☎ 943 160 120

ESKOLA LAGUNTZA

- ✱ Lehen hezkuntza, DBH
- ✱ Batxilergoa
- ✱ Moduluko, Zikloak
- ✱ Unibertsitate-maila

GOIERRIKO

UNIBERTSITATEA

- ✱ Marrazketa teknikoak
- ✱ Fisika
- ✱ Matematika
- ✱ Teknologia

TAILERRAK

- ✱ Ortografia, Idazmena
- ✱ Irakurmena, Ulermena
- ✱ Matematika, Kalkulua

IKASKETA ARAZOAK

- ✱ Atentzioa
- ✱ Ohiturak, Metodoak
- ✱ Emozioen kontrola

www.ikastek.net
ikastek@ikastek.net



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN



Euskadiko txapelketan txapeldun postuan Axier Mujika eta hirugarren postuan Axier Izuzkiza.



Euskadiko txapelketan txapeldun postuan Gorka Izagirre, bigarren postuan Egoitz Berasategi eta hirugarren postuan Jon Urteaga.

Jubenil mailan Axier Mujika eta Axier Izuzkiza

Caja Rural taldeko bi jubenil goierritar aritu dira: Axier Mujika beasaindarra eta Axier Izuzkiza mutiloarra. Lehenengoa Italiako Munduko Txapelketan da orain. Hau da denboraldi honetan lortu dutena:

Lasterketa	Axier Mujika	Axier Izuzkiza
Karrantza	2.	
Amorebieta	1.	
Astarria	1.	3.
Ermua		2.
Elorrio		3.
Valladolid	2.	
Aizarnazabal*	1.	2.
Itsasondo	1.	2.
Bera**	1.	3.
Asteasu	1.	
Abadiño		2.
Idiazabal		3.
Ispazter		2.

* Gipuzkoako txapelketa. ** Euskadiko txapelketa.



Lide Larrañaga

Aipatzekoa da nesketan, Lide Larrañaga idiazabaldarra laister-tzen aritu dela. Bere herrian, Idiazabalen, urtar-rilaren 25ean izan zen proban 2. postua lortu zuen Lidek.

Kadete mailan Jon Urteaga, Gorka Izagirre eta Egoitz Berasategi

Garmendia tejas y cubiertas-Loinaz T.E. taldean kadete mailako 6 txirindulari aritu dira lehian: Gorka Izagirre ormaiztegiarra, Egoitz Berasategi ormaiztegiarra, Jon Urteaga idiazabaldarra, Urko Lasa ormaiztegiarra, Julen Gonzalez beasaindarra eta Pedro Usabiaga ordiziarra. Azken biak lehen urteko kadeteak izan arren, 2. urtekoekin nor baino nor aritu dira. Baina denen gainetik aipagarriak izan dira batez ere lehen hirurek lortu dituzten emaitzak. Ondorengo taulan daude bakoitzaren izenaren azpian denboraldi honetan lortu dituzten postuak:

Lasterketa	Gorka. I.	Egoitz. B.	Jon. U.
Karrantza	1.	3.	2.
Gordexola	3.	1.	4.
Amorebieta	8.	3.	4.
Astarria	2.	4.	7.
Zeberio	4.	1.	6.
Orio	2.	3.	5.
Igorre	4.	2.	3.
Ermua	1.	3.	5.
Elorrio	2.	1.	4.
Aizarnazabal*	2.	1.	3.
Itsasondo	2.	1.	4.
Bera**	1.	2.	3.
Asteasu	1.	3.	7.
Asturias***	1.	2.	12.
Abadiño	1.	3.	7.
Muxika	1.	5.	2.
Idiazabal	2.	3.	1.
Ispazter	2.		1.

* Gipuzkoako txapelketa. ** Euskadiko txapelketa. *** Espainiako txapelketa.



Idiazabalgo kodrila arteko futbol finala 1979an

1979ko Sanblasetan, koadrila arteko futbol txapelketako finala jokatu ondorengo argazkia da. Liverpool eta Behekoak taldeek jokatu zuten. Argazkia, Kirol Elkartea 25. urteurreneko liburua prestatzeko egiten ari den bildumakoa da.

Zutik, ezkerreko aldetik hasita: Migel Urrestarazu, Julian Elorza, Iñaki Iparragirre, Jabier Aranburu, Vicente Romero, Juanito Aranburu, Jose Luis San Sebastian, Jose Santana. **Beheran:** Martin Iparragirre, Guillermo Urrestarazu, Estarbe, Jose Antonio Unanue, Patxi Iparragirre, Jose Ramon Iriondo eta Jesus Serrano.



MUJIKA
frutak - barazkiak

☎ 943 18 72 20 (biltegia) Plaza Nagusia, 6
☎ 943 18 77 14 (etxea) IDIAZABAL

San Bas jai
zoriontsuak
guztioi!

Garbitasunak
OXEPI

☎ 607 140 721 ZALDIBIA

ARANTXA
LENTZERIA- MERTZERIA

UMEEN ERROPAK
Jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 18 75 06
Bikuña Kalea, 1 IDIAZABAL

XUME TABERNAk

Festa onak opa dizkizue

Nagusia, 5 IDIAZABAL ☎ 943 18 70 35

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza



URDANETA EP

Intxausti Plaza z/g.
Tlfnoa.: 943 88 27 80
Fax: 943 16 18 16
012279aa@hezkuntza.net

OIANGUREN BHI

Altamira Auzoa z/g.
Tlfnoa.: 943 88 08 62
Fax: 943 16 41 21
012282aa@hezkuntza.net



ORDIZIAKO ESKOLA PUBLIKOA

Aukeratu zeurea guztiona

HAUR HEZKUNTZA

Artile laranja 9 cent

Artile urdin argia 2 cent

Artile urdin iluna 3 cent

LEHEN HEZKUNTZA

Artile turkesa 10 cent

Artile arrosa 8 cent

DBH

Artile horia 4 cent

Artile berde argia 5 cent

Artile berde iluna 6 cent

BATXILERGOAK

Artile moratua 7 cent

Artile txuria 20 cent

HEZIKETA ZIKLOAK

Artile granatea 5 cent

Artile gorria 6 cent

3eraikin
1
proiektu

Urdaneta - Oianguren eskola euskalduna, anitza eta parte hartzea bultzatzen duena da.

Gure hezkuntza proiektua pertsonen heziketa osoan oinarritzen da, bakoitzaren izaera eta egoera kontuan hartuz.



ANTZIZAR

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

www.antzizar.net

tel. 943 887900

+60-35%

Z A I N D U Z A I T E Z E N Z A I N T Z E N Z A I T U G U

Zeure onerako lanetan jarduteko

garaia duzu. Inoiz baino gehiago

estimatu zaitezten. Zu dotore ikusteak

betetzen gaituelako. Aurrerantzean

elkarrekin gauza asko ikas ditzagun.

D U Z U N A S T I A H O B E R E N E R A B I L T Z E K O A U K E R A D U Z U